

# CATALUNYAREN FINANTZATZE MEKANISMOA

---

*Ramon TREMOSA I BALCELLS*  
**Teoria Ekonomikoaren departamentuaren zuzendaria**  
**Bartzelonako Unibertsitatea**

## **Aurkibidea**

### **Laburpena eta sarrera**

- 1.- Ekonomia hazkundera eta zerga-fluxuak
- 2.- Espainia autonomikoa: gastuak zentrifugatzea eta boterea zentralizatzea
- 3.- Ez dago aldaketarik finantzatze eremuan
- 4.- Estatuak soilik finkatutako solidaritatea
- 5.- Zerga Agentzia baldintzatua
- 6.- Bermatu gabeko estatuaren inbertsio publiko
- 7.- Zehaztu gabeko ordena-printzipioa

**Ondorioa:** Kataluniako finantzazio berria? Galdera gehiegi

**Eranskina:** Kataluniak Espainiako estatuarekin duen zerga-defizitaren ondorio makroekonomikoak (2002-2010).

**Taulak**

**Bibliografia**

## Laburpena

Artikulu honek Kataluniako Generalitateko finantzazio autonomikoa aztertzea du helburu; finantzazio autonomiko hori 2006ko Kataluniako Estatutu berriaren ondorioa da. Generalitateko finantzaketa ereduaren aldaketa baino, Kataluniako Estatutu berriak finantzaketa-eredu anitz edo multzo bat definitzen du, eta interpretazio-mota asko onartzen dituzte eredu horiek: adibidez zerga federalismoaren mekanismo batzuetara hurbiltzekoa (Espainiako gobernu zentralak interpretazio eskuzabala egiten badu) edo araubide komuneko autonomia erkidegoetan baliabideak banatzerakoan gobernu zentralaren diskrezionaltasuna sendotzekoa (interpretazio murriztailea egiten badu).

Hori dela eta, Madrilgo eta Bartzelonako parlamentuetako gehiengo politiken jolasaren arabera, etorkizunean Kataluniako Generalitatearen finantzazio autonomikoa hobetu ahal izango da eta baita okerragotu ere. Kataluniako Estatutu berriaren helburua Generalitateko finantzazioak Madrilgo Diputatuen Kontseiluan izan dezakeen aurkako gehiengo osoengandik babestea bazen (horixe da Kataluniako alderdi politikoek eta gizarte-eragileek gehien erabili duten justifikazioa autonomia estatutuaren testua justifikatzeko), babes hori zalantzagarriagoa da azken testua ikusita.

*“Karlismoa ez da mugimendu dinastiko eta atzerakor hutsa, ondo ordaindutako historiagile liberalek esan zuten moduan. Mugimendu aske eta herrikoa da, ohituran aldekoa, eta Frantziako iraultzatik kopiatzen den liberalismo xurgatzailea baino askoz ere liberalagoa eta erregioen aldekoagoa da. Karlistak Espainiako ohitura juridiko hobeen aldekoak ziren: Foruak. Aberri handia tokiko aberrien batuketatzat hartzen zuten, eta tokiko*

aberri horiek berezko berezitasunak eta ohiturak zituzten. Europan ez dago Espainia bezalako beste herrialderik, antzinako herriei buruzko eta itxura herrikoei buruzko hainbeste arrasto dituen herririk, Historiak berak suntsitu ditu horiek. Frantzian bretoiak izan ziren eta Espainian, askoz ere modu orokorragoan eta nazionalagoan, Karlos jaunaren aldekoak.

Tradizionalismo karlistak oinarri herrikoiak eta nazionalak zituen, nekazariak, jabe txikiak eta kleroarenak, eta liberalismoa, aldiz, militarismoan, kapitalismoan (merkatarien eta espekulatuzaileen klase berriak), aristokrazia latifundistan eta interes sekularizatuetan oinarritzen zen.”

**Karl Marx, “La revolución española” (1868-1873). Zenit Argitaletxea,**

**1929**

“Estatuak ekonomia-jardueraren alderdi hain garrantzitsua kontrolatzen duenean (Alemaniako gastu publikoa BPGren %50 izan zen 1928an), hain ondorio gogorak ditu sistema ekonomikoaren gainontzeko alderditan, ezen sektore publikoa izango dela era ez-zuzenean ekonomia osoa kontrolatuko duena.”

**Friedrich A. Hayek, “Camino de servidumbre” (1944)**

“Estatuak lurraldeen artean transferentzia garrantzitsuak egiten dituenean, azkenean lurralde aberatsetako pobreek lurralde pobreetako aberatsei ordainduko diete”

**Finn Poschmann (1998)**

“Zerga-transferentzia publikoak ez dira eraginkorrak hazkunde ekonomia bultzatzeko: egitura-izaera eta bolumen handia dela-eta, garapen txikiagoa duten herrialdeek arrazionalki onartuko dute azpigaratu izaten jarraitzea, betiere diru-laguntzak era egonkorrean jasoko dituztela ikusten badute”.

**Desmet, K. y Ortuño, I. (2001). “Rational underdevelopment”, Espainiako Bankua**

## **1.- Ekonomia hazkundera eta zerga-fluxuak.**

Teoria Ekonomikoaren irakasle batek interesa izan dezake gaur hemen hizpide ditugun Ogasun Publikoko gaien inguruan, ezen garrantzi eta eragin handia baitute ekonomia hazkundera sektore publikoak lurraldeen artean sortzen dituen zerga-fluxuek. Hori dela eta, 1. eta 4. taulek aberastasunaren hazkundera eta banaketari buruzko ekonomia aldagai nagusi batzuek azken urte hauetan izan duten bilakaera aurkezten dute, zenbait autonomia erkidegoei buruzko datuak dira. Bai biztanleko BPGri, bai okupatuko produktibitateari eta biztanleko errenta erabilgarriari dagokienez, azken urte hauetan Kataluniako ekonomian hazkundera txikiagoa gertatu da, eta hazkundera-portzentajeak beti Espainiako batezbestekotik beherakoak izan dira.

Katalunian ekonomilari askok diote hazkundera txikiagoa dela Kataluniak Estatuari ekarpen gehiegi egiten dizkiolako, "Espainiako estatuarekiko Kataluniako zerga-defizita" deitutakoarekin bat etorritik (11. taula): Katalunian sektore publiko zentralak (Estatua eta Gizarte Segurantzak) urtero biltzen dituen zergen eta Kataluniak estatutik jasotzen duen gastu publikoaren artekoa aldea gero eta handiagoa da, eta horrek Kataluniako ekonomia deskapitalizatzeko iturri bihurtu egin da; gaur egungo eragile politiko, ekonomiko eta sozial gehienek onartzen dute egoera hori. Hortik sortu zen Katalunia eta Espainiaren arteko harremana berrikusteko beharra, hau da, harreman hori beste autonomia estatu baten bidez eguneratzeko beharra.

Azken hamar urte hauetan araubide komuneko Espainiako eredu autonomikoak erakusten dituen lurralde-hazkundera emaitzak, gehiago dira estatu unitario baten ezaugarri estatu deszentralizatu batenak baino.

Europako 166 lurraldeen 2002ko biztanleko BPGri buruz Eurostatek emandako estatistika ofizialen arabera (11. taulak jasotzen ditu horiek), baieztatu egiten da ondoko joera: erkidegoek nagusitzen dutela Espainiaren eta EBren arteko bateratasuna. Madrilek, Euskadik eta Nafarroak soilik sendotu dute azken urte hauetako abiadura handia eta, aldiz, gainontzeko erkidegoen hazkundera askoz ere txikiagoa izan da, eta batzuetan Europako batezbestekotik urundu dira. Horrela bada, hiriburuak eta foru-sistema duten erkidego biek soilik egiten dute bat indar handiz Europako testuinguruan eta, aldiz, mediterraneo arkuko erkidegoek azken urte hauetan ia ez dute Europarekiko bateragarritasunik aurkeztu.

Biztanleko BPGri buruzko Europako lurraldeen mapa aztertuz, lurralde-elkarganatzeko ereduan ezberdintasun handiak ikusten dira estatu handietan. Alemaniak eta Italiak ere lurraldeen artean alde handia dute, baina aberastasuna sortzeko gaitasuna duten bertako erregioek homogeneotasun handia erakusten dute: garatutako eremu gehienak Europako batezbestekotik gora daude, %25 eta %50 bitarteko aldearekin, eta bertako hiriburu politikoak ez dira sailkapen horretan bereizten, puntako lurraldeetatik behera baitaude. Frantziak, aldiz, Estatu eredu zentralista nagusia izateko moduko emaitzak ditu: París lurraldea 165. mailan zegoen dagoeneko 2001. urtean (153. mailan 1997an), herrialdeko gainontzeko departamentuak 103. eta 83. mailen artean ziren bitartean.

Une honetan Madrildik askotan esaten dute Espainia "munduko herrialde deszentralizatuena dela"; baieztapen horrekin lurralde-antolaketa eredua berrikusteko aukera itxi nahi dute. Baina Eurostaten emaitzak argiak dira: lurralde-elkarganatzeko azken urte hauetako eredu espainiarra argi eta garbi Frantziako eredurantz hurbiltzen da, Estatu federal baten berezko emaitzak erakutsi beharrean, adibidez Alemaniako emaitzak. Hori dela eta, esan dezakegu lotura argia dagoela ekonomia-elkarganatze eta lurraldeen

zerga-saldoaren eta Espainiako sektore publiko zentralaren artean, baina 1996tik aurrera lurraldeen zerga-balantzeetarako daturik ez dugunez, ezin dugu hori enpirikoki egiaztatu.

Estatutik kitatutako datu ofizialetatik abiatuta zerga-balantzak direla eta Espainian argitaratu den liburu bakarraren arabera ("*Las balanzas fiscales de las CCAA*", Castells eta beste batzuk, Ariel, 2000), 1991-1996 aldirako indarrez bat egiten duten hiru erkidegoek ez zuten zerga-defizirik izan (Madril Estatuarekin zero defizit izan zuen bost urte horietan) edo oso zerga-defizit txikia izan zuten (ekonomia ituna duten bi erkidegoetan lurraldeko BPGren %2 eta %4 bitarteko zerga-defizita izan zuten), betiere diru-fluxuaren kalkuluaren irizpidea kontuan izanda, nazioarteko ekonomia-literaturaren arabera egokiena baita. Kataluniako ekonomian, aldiz, 1991-1996 bitartean zerga-defizit handia izan zuten (urteko BPGren %7), eta gehiegizko zama zen dagoeneko hazkunde ekonomikorako (1. grafikoa). 1996. eta 2001. urte bitartean (azken datu ofizialak urte horretakoak dira), Kataluniako zerga-defizita Kataluniako BPGren %10,5 izatera heldu da (2001), eta horrek esan nahi du argi eta garbi kausa-efektu lotura dagoela: zerga-defizita handiagoa bada, ekonomia-hazkundera txikiagoa izango da.

## **2.- Espainia autonomikoa: gastuak zentrifugatzea eta boterea zentralizatzea**

Badago herrialde baten "intentsitate federala" neurtzeko edo zein den jakiteko modu erraz bat, herrialde hori federala den edo ez aztertuz; horretako zerga-federalismoaren oinarritzko literaturak gomendatzen duen modua erabiliko dugu: ikusi behar dugu zerga-subiranotasuna noraino kontzentratzen den goi mailako gobernuan edo zentrolean. Federalismoa behetik gora (eta ez behetik gora) sortu diren herrialdeen ezaugarria da. Europar Batasunaren edo Estatu Batuen sorrera da lehen kasu horren

adibidea, ezen goi mailako batasun politiko bat sortu da baina horren subiranotasuna ondoko bi ardatzetan oinarritzen da: fiskala eta judiziala. Horrela ulertu dezakegu, adibidez, zergatik Texas estatuak bere Konstituzioan autodeterminazio eskubidea onartuta duen.

Estatu federaletan lege-testu garrantzitsuak aldatzeko, Kataluniako Estatutua berritzeko erabili duten aurkako prozesua erabiltzen dute. Estatu Batuetan konstituzio federala berritzeko 52 estatuen aldeko botoa behar dute; aldiz, Oklahoma edo Tennessee estatuak euren konstituzioa aldatu nahi badute, gobernu federalak ez du ezer esaterik; horregatik zenbait estatuk zerga batzuk kendu edo jar ditzakete edo heriotza-zigorra ezartzeko aukera dute. EBko konstituzioan antzeko prozesua jarraitzen ari dira, baina Frantziako eta Holandako porrotek aldi baterako geldiarazi dute prozesu hori. Katalunian berriz, Parlamentuak Estatutuaren berrikuntza onetsi du, baina Diputatuen Kontseiluak du azken hitza, eta nahi duen moduan alda dezake.

Espainiako kasuan, intentsitate federala neurtzeko, sarrera publikoen deszentralizazioaren portzentajea neurtu beharko genuke; hau da, ikusi beharko genuke zer gobernu-mailak biltzen dituen zergak. Intentsitate federala aztertzeko ez dugu aztertu behar, gobernu zentralak askotan esaten duen moduan, azkenean zein gobernu-mailan kitatzen den gastu publikoa; gainera gastu publikoaren zati handi bat jatorriz baldintzatuta etor daiteke. Espainian gertatzen den moduan, beste herrialde unitario batzuetan edo erregionalizazio handiagoko edo txikiagoko beste herrialde batzuetan, gastu arrunta handia igor dezakete (funtzionarioei ordaintzea, ondasun eta zerbitzu arruntak erostea), baina Zerga Agentzia botere zentralaren esku egongo da soilik; horrela bada, zerga nagusi guztien kudeaketa, bilketa eta kitapena monopolizatuko dute.



2006ko Kataluniako Estatutu berriak ez du Kataluniako autogobernuaren eta finantzazioaren eremuan aldaketa garrantzitsurik ekarri. 2006ko Moncloaren Estatutuak (horrela deitzen dute Moncloan landu baitzuten azken testua) 1979ko Kataluniako Estutuaren logika bera aplikatzen eta jarraitzen du: gai sinboliko batzuk zabaldu ditu, eskumen berri batzuk lortu ditu, baina ez du lortu finantzazio-sistema aldatzea, lotuta eta ondo lotuta jarraitzen baitu araubide autonomiko komunaren barruan.

Askotan esaten denaren aurka, araubide komuneko Espainia autonomikoa ez da munduko herrialde deszentralizatuenetako bat, behintzat honako hiru kategorია hauei dagokienez: a) autonomia erkidegoen eskumenei eta, beraz, berezko politiko ezberdinak eta baliabide ekonomiko nahikoekin egiteko gaitasunari dagokionez; b) Estatuaren “gobernu konpartituan” parte hartzeko gaitasunari dagokionez, ezen Espainiako Estatuan ez baititugu beste federazio batzuetan dituzten zenbait mekanismo, adibidez lurraldeko Senatua edo gobernuen arteko batzordeak; c) autogobernurako babes juridikoen bermeei dagokienez, askotan berme horiek hauteskunde orokorren emaitzen ondorioz suertatzen den egoera politikoaren menpe baitaude.

Hori dela eta, araubide komuneko Espainia autonomikoak ez ditu behar bezala arautu nazionalitate anitzeko federazioetan ohikoak izaten diren eredu asimetrikoak, Belgikan eta Kanadan gertatzen den bezala; ezta federalismo anglosaxoiaren ereduak ere, zeinaren arabera gobernu-maila berean esleitzen baitira gai bati buruzko funtzio legegileak eta betearazleak, Australian eta Kanadan bezala; eta ez ditu ere arautu Europar erdialdeko federalismoak garatutako kooperazio eta exekuzio mekanismoak, Alemanian eta Austrian bezala (Requejo, 2003).

Esaten dutenean Espainia "munduko herrialderik deszentralizatuena dela", eredu autonomikoaren garapenarekin eta zabalketarekin amaitzea dute helburu. Nazioarteko Moneta Funttsaren txostenek, berriz, Espainia estatu federaletatik kanpo kokatzen dute eta "federalismoko ñabarduraren bat" duten estatuen artean sartzen dute. 2. taulak Espainiako Estatuaren gobernu-mailen arabera gastu publikoa jasotzen dute 1980. eta 2001. urte bitartean; Taula horretan ikus dezakegu BPGren gaineko gastu publikoaren proportzioak gora egin duela BPGren %29tik %41era, ondoko lerroari jarraituz: herrialde garatu askotan ikusi dugunez, ekonomian sektore publikoaren garrantzia gero eta handiagoa da. Garrantziaren hazkunde hori dela-eta, Espainiako gobernu zentralak ekonomian ia esku-hartze maila berarekin jarraitzeko aukera izan du 1980. eta 2001. urte bitartean: BPGren jaitziera txikia izan da, %26tik %25era, eta modu horretan trantsizioaren deszentralizazio politikoaren kostuak konpentsatu ahal izango dira, gastu publiko osoarekiko garrantziak behera egin baitu (1980. urtean %90 zen eta 2001. urtean %60).

Gobernuaren erdiko mailari dagokionez, 1980. urtean oraindik ez zegoen maila hori, eta 2001ean autonomia erkidegoek gastu publiko osoaren %26 gauzatu zuten, eta gastu hori urte horretako BPGren %11 da. Amaitzeko, eta gobernu lokalei dagokienez, 1980ko gastu publiko osoaren %10 gauzatzetik (urte horretako BPGren %3) 2001ean %13 gauzatzera (2001eko BPGren %5) pasatu dira. Gobernu lokaletan BPGrekiko gastu-maila horiek oso urrun daude estatu federaletan ikusten direnetatik.

Ogasun Ministerioren arabera, beraz, Espainian 2001ean gobernu zentralaren barneko gobernuen (gobernu autonomikoak eta lokalak) gastu publikoko maila gastu publiko osoaren %39 izan zen. Nazioarteko testuinguruan, aldiz, ELGak Espainian gobernu zentralen barnean aipatutako bi maila (baita 2001ean ere) gastu publiko osoaren %32 esleitzen

zien (Joumard eta Kongrud, 2003), gobernu horiek emandako datuetatik abiatuta. %32 kopurua oso urrun dago Danimarkako %58tik, Kanadako %57tik, Suediako %44tik, Japoniako %41etik, Estatu Batuetako %40tik, Norvegiako %39tik edo Alemaniako %37tik. 49. orrialdean aipatutako bi autore horiek diote Espainiako sektore publikorako “gardentasun ofiziala hobetu beharko litzatekeela, ezen gastu publikoari eta zerga-bilketari buruzko datu ofizialak oso berandu ematen badira oso zaila izango baita kontabilitate-sendotzeri ekitea”.

Gainera, Espainiako Estatuko gobernu-mailen arabera egiten den zerga-bilketaren ikuspuntutik, oraindik ere argiago ikusten dugu horren egitura zentralizatu sendoa. 3. taulan ikus dezakegu gobernu zentralak 1988an Espainian zerga guztien %86 biltzen zuela, (urte horretako BPGren %29 litzateke hori), eta 2001ean, aldiz, gobernu zentralak Espainian zerga guztien %80 bildu zuen (urte horretako BPGren %32 da hori). Azken portzentaje horrek adierazten du 2001ean Espainiako BPGrekiko garrantzia handiagoa izan zela, 1988ko BPGrekiko garrantziaren aurrean. Gobernuko erdiko mailari dagokionez, autonomia erkidegoek 1988an Estatuaren zerga guztien %6 bildu zuten (urte horretako BPGren %2), eta 2001ean gastu guztien %12 bildu zuten, hau da, 2001eko Espainiako BPGren %6. Amaitzeko, gobernu lokalek zerga guztien bilketa osoan garrantzi bera izan dute 1988. eta 2001. urte bitartean, %8koa alegia.

Ogasun Ministerioaren arabera, beraz, Espainian 2001ean gobernu zentralaren barneko gobernuen (gobernu autonomikoak eta lokalak) zergen bilketaren maila bilketa osoaren %20 izan zen. Nazioarteko testuinguruan, aldiz, ELGAK Espainian gobernu zentralen barnean aipatutako bi mailei zergen bilketa osoaren %18 esleitzen zien (Joumard eta Kongrud, 2003). Kopuru hori oso urrun dago Kanadako %50etik, Estatu

Batuetako %40tik, Danimarkako eta Irlandako %35etik eta Alemaniako %33tik. Kopuru horiek guztiak 2001. urtekoak dira.

### **3.- Ez dago aldaketarik finantzatze-ereduan**

2006ko urtarrilean Moncloan hitzartutako finantzatze-ereduak (eta 2006ko udazkenean Madrileko Parlamentuan izapidetzerakoan ez zuten aldaketarik egin), ez zuen Katalunia eta Espainiako Estatuaren arteko zerga-harremanetan egiturazko aldaketarik ekarri. Kataluniako Estatutuaren 206. artikulua, 1. puntuan ondokoa dio: Generalitateak zerbitzuak eta eskumenak finantzatzeko izango dituen baliabideak “gastu-beharren” irizpidean oinarrituko direla. Horrek esan nahi du gobernu zentralak nagusitasuna izaten jarraituko duela behar horiek finkatzeko orduan, betiere *Zerga eta Finantza Politikako Kontseilu Nagusiaren* eremuan eta 1980ko LOFCArekin, autonomia erkidegoak finantzatzeko Lege Organikoarekin, bat etorritik.

Kataluniako estatutu berriarekin alderdi anitzeko negoziazio-esparrutik alde egin nahi zuen, eta orain dela gutxi Ceuta eta Melillak ere bat egin dute eremu horrekin, hiri autonomo izendatu baitituzte. Historikoki negoziazio-esparru hori satartea izan da Kataluniako Generalitatearen finantza-interesetarako. Guillem López-Casasnovas Pompeu Fabra Unibertsitateko katedradunaren ustez, “Kataluniak ezin ditu bere irizpideen alde egin hamazazpi kideko mahai horretan: dagoen gobernuak beti, kontrolpean dituen erkidegoen bidez, Kataluniako nahien aurkako fronte bat sortzen du”.

Gainera, autonomia erkidego batzuek Kataluniako estatutua berritzeko prozesua amaitu arte itxaron dute estatutu horretako finantza-

artikulu asko kopiatzeko eta, kasuan-kasuan, horren aurkako programa egiteko, Andaluziako estatuarekin gertatu den bezala. Kasu hori bereziki zaugarria da, Kataluniako estatutuko zenbait artikuluren aurka egin baitzuen PPK, baina ondoren Andaluziako estatutuan alderdi horrek artikulu horien aldeko botoa eman zuen.

Andaluziako PPKo presidente Javier Arenasek esan zuen Andaluziako estatutua konstituzionala dela guztiz eta "solidaritaterik gabeko nazionalismoaren aurkako antidotoa dela". Albert Lamarcak, Pompeu Fabra Unibertsitateko irakasleak, estatutu bi horiek konparatu ditu eta PPK Konstituzio Auzitegiaren (KA) aurrean aurkaratutako artikulua aztertu ditu.

Lamarcak dio hizkuntzari, kulturari, eskubide historikoei eta Andaluziako estatutuak jasotzen ez dituen beste gai batzuei buruzko artikulua kenduta, PPK KAren aurrean aurkaratutako artikuluen %80 2002ko azaroaren 2an Diputatuen Kontseiluan onestu egin zituela Andaluziako estatuturako. Artikulu gehienak Kataluniako ereduari jarraituz idatzi dituzte (eta artikulu askotan ez dute aldaketarik egin), batez ere justizia eta finantzatze eremuei dagokienez. Kataluniako estatutuak zehaztasun handiagoak ematen ditu eskumenei buruz, baina Andaluziako Kataluniakoa baino artikulu gehiago ditu, 250 eta 223 hurrenez hurren.

KAren aurrean aurkaratutako artikuluen artean, berrogeita hamar artikulutan fotokopiagailuak nola egin duen lan erakutsiko dugu: hasieran Kataluniako testuaren artikulua dago, eta gidoiaren atzean Andaluziako estatutuan dagokion artikulua duzue. 7-5, 20.1-20.2, 21.2-21.2, 80.1-30.1, 82-131, 95-140 eta 143.1 eta 2, 96-143.4 eta 5, 97.98 eta 99-144, 101-146, 103-147, 105-149, 107-151, 122-78, 126.2-75.7, 127.2-68.2, 132.1-66, 135-76.3, 140.2.3.4 eta 7-64.4.5.6 i 9, 141.2-81.2, 144.5-57.5, 146.1.a eta b-69.1 eta 4, 148.2-56.8, 149.2-56.9, 152-58, 154.2-58.4.5è, 157-70, 158.3-54.3, 160-60, 162-55, 169.2 i 3-

64.7 eta 8, 166-61, 170.1. eta -63.1.1r, 170.2-63.2, 171.c-71, 172-53, 180-224, 182-87, 183-220, 185-233, 186-231, 187-234, 189-235, 191.1-238.1, 195-241, 204.1-181.2, 205-182, 210-184, 222-248, DA2-231.3, DA7-178, DF1-DF1, DF3-DF2.

Horrela bada, adibidez Andaluziako Estatutuak dio gobernu zentralak biztanleen irizpideari lehentasuna eman beharko diola estatuaren inbertsio publikoa banatzeko, eta Kataluniako estatutuak, aldiz, dio erreferentziazat hartu behar dela Estatuaren BPGrekiko lurraldeen BPGk duen garrantzia. 2007ko eta 2008ko Estatuaren Aurrekontu Orokorrek (inbertsio publiko osoaren %25 erregionalizatu gabe jarraitzen dute) Andaluziako estatutua betetzen dute (Andaluziak %18,5 jasotzen du, Estatu osoan diren biztanleekiko biztanle kopuru hori baitu) baina ez dute Kataluniako estatutua betetzen (Kataluniak inbertsioaren %14 jasotzen du, nahiz eta Estatu osoko BPGren %18,5 sortu). Eta aurrekontuetan jasotako inbertsioaz ari gara, ez gauzatutako inbertsioaz: 2001etik 2006ra Katalunian aurrekontuetan jasotzeko inbertsioen %70 baino ez zuten gauzatu, eta aldiz Madrilen 2006an aurrekontuetan jasotako inbertsioen %125 gauzatu zen (*El Periódico*, 2007.11.05).

8. taulak konparatu egiten ditu Kataluniako Estatutu berriaren seigarren tituluari buruzko gaiak; Generalitateko finantzaziorari buruzkoa da titulu hori. 2003ko abenduko Tineel itunaren zerga-gaiari buruzko proposamenen, 2005eko urtarrileko CiUren proposamenaren eta 2005eko apirilako hiru alderdiko gobernuaren proposamenaren alderdi nagusiak konparatuko ditu aipatutako taulak. 9. taulak alderdi berak aztertzen ditu, baina 1979ko San Estatuari, 2005eko irailaren 30ean Kataluniako Parlamentuak onetsitako Estatuari (%89 Kataluniako diputaturen aldeko botoaz onetsitakoa) eta 2006ko ekainaren 18an onetsitako Moncloako Estatuari dagozkienez.

8. taulak jasotako proposamenen artean CiUrena, Ekonomia Akordioa deitutakoa, hurbiltzen zen gehien foru-eredura; foru-eredu horrek oso emaitza onak izan ditu Euskadin eta Nafarroan, bai ekonomia hazkunderi dagokionez, bai gizarte zerbitzuei dagokienez. Tinell itunak zenbait anbigutasun zituen finantza-kapituluan, baina aurrerapen handia zen indarrean dugun ereduarekiko. 8. taulak nabaritzen dugu dagoeneko PSOEk finantzazio-eremuan duen eragina, ez baitira oinarritzko alderdi batzuk zehazten, adibidez Estatuaren transferentziak gutxitzea estatuaren zergetan duten esku-hartzearen zenbatekoan, (horrelaxe egin zen 2001ean) edo toki-finantzazioa.

Hala eta guztiz ere, proposamen horrek finantzatze-ereduaren aldaketarantz bideratzeko moduko zenbait elementu zituen: elementurik garrantzitsuena esplizituki aipatzen zuen %50, Estatuko Zerga Agentziara eramateko Katalunian jasandako zergen gehienezko ehunekoa litzateke (sozietateen gaineko zerga barne). Ehuneko hori zehaztaperen kuantitatiboa zekarren berekin, eta hortik abiatuta Kataluniako zerga-defizita eraginkorki murrizteko aukera izango zuten; CiUren akordio ekonomikoko proposamenak etorkizunean zerga-defizit hori Kataluniako urteroko BPGren %4ra mugatzea espero zuen. PSC-PSOEren presioa zela-eta, bi zenbaki-zehaztaperen horiek bertan behera gelditu ziren Estatutua negoziatzeko azken unean, 2005ek irailean, ustezko "testuaren konstituzionaltasunaren" alde. Kontuan izan behar dugu Alemanian, adibidez, Konstituzio Federalak berak eta Länderretako Konstituzioek finkatzen dutela sozietateen gaineko zergaren ehunekoak eta banaketarako irizpideak; horrela bada, estatu federalen interesak babestu egingo dira Berlineko gobernuak izan ditzakeen zentralizatzeko tentazioen aurrean.

Horrela bada, estatutuaren azken testuak, Moncloatik igaro ondoren, 201.1. artikuluan LOFCAr buruzko aipamen esplizitua egin zuen, nahiz eta

Kataluniako Parlamentuak onetsitako testuan horri buruzko aipamenik ez egin. Gehiegi litzateke ustea hierarkia bat dagoela Kataluniako estatutu berrian LOFCArekiko, artikulua horrek esaten duenean “Konstituzioak, Estatutu honek eta Konstituzioaren 157. artikulua aipatutako lege organikoak arautuko dituztela Estatuaren eta Generalitatearen arteko zerga eta finantza harremanak”.

Zaila da puntu horri buruz 2006ko Moncloako Estatutua eta 1979ko Estatutua konparatzea: Sau-ko Estatutu oso testu orokorra zen finantzazioari dagokionez, autogobernuari buruzko esperientziarik ez baitzegoen, eta oso bestelakoa delako finantzazio-eremuan Estatutu berriak dituen artikuluen zehaztasuna eta xehetasuna kontuan izanda. Ezin da jakin bukaeran zer irabazi lortuko diren, azken buruan, nahikotasun funtsaren menpekoak baitira, eta Estatuak aldebakarrez finkatzen du funts hori. Estatuko goi kargudun batzuek laster esan zuten (2006ko urtarrilean Artur Mas Moncloan izan eta egun batzuk igarota) Katalunia nahikotasun funts horren zergadun hutsa izango zela, eta ez jasotzaile hutsa beti izan den bezala (Miguel Ángel Fernández Ordóñez, *Expansión*, 2006.01.26).

#### **4.- Estatuak soilik finkatutako solidaritatea**

Pujol presidentek, Madrilgo Diputatuen Kontseiluaren gehiengo osoak Baltikoko itsasoko izotzarekin konparatzen ditu. Itsasoa izozten denean itsasontziek ezin dute nabigatu, eta era berean, CiUk ezin zuen autogobernurako kota handiagoa lortu ez bazuen Madrilen gehiengoak osatzeko moduko indar erabakigarria osatzen, 1982. eta 1993. urte bitartean eta 2000. eta 2004. urte bitartean gertatu zen moduan. Baltikoa urtzen denean itsasontziak nabigatzera irten daitezke eta CiUk “peix al cove” deitutakoa aplikatzen du (hitzez hitz itzulita: arrainak saskian), eta



eraginkorra izan zen 1993. eta 1996. urte bitartean PSOekin eta 1996. eta 2000. urte bitartean PPrekin.

206.3 artikulua finkatu egiten du Kataluniako Generalitateko baliabideak, bere zerga-sarreren ondoriozkoak, "doitu ahal izango direla gehiago edo gutxiago" beste erkidego batzuekiko nibelazio eta solidaritate mekanismoetan duen esku-hartzea dela-eta. Definizio hau gaur egungo finantzatzeko ereduari dagokio; eredu honetan dagoen gobernu zentralak zehaztuko du zer gastu-behar dituzten araubide komuneko erkidegoek. Gobernu zentralak inor gabe nahikotasun funtsa definitzeko gaitasuna duenez, bera da azkenean erkidegoen baliabideak zehaztuko dituen: jardura ekonomikoa dela-eta, eta lurraldeen arabera bildutako zergak direla-eta, Kataluniako Generalitateak Andaluziako Juntak baino aurrekontu handiagoa izan beharko luke; hori horrelaxe izan da beti, eta ez da aldatuko oraindik aurrera. 5. taulak Generalitatearen zergen saskiaren eta Estatuaren nahikotasun funtsaren arteko lotura aurkezten digu.

Interesgarria eta argigarria litzateke *Zerga eta Finantza Politikako Kontseilu Nagusiak* egiten dituen bilkuren aktak publikoak izango balira, ikusteko zer argudio erabiltzen dituzten erkidegoen gastu-beharra definitzeko. Berriz ere gardentasun gabeziaz hitz egin behar dugu, zerga balantzekin, Kataluniako aireportuen irabaziekin edo Estatuaren Zerga Agentziak lurraldeka egiten dituen ikuskaritzekin gertatzen den moduan. Horrela bada, adibidez gobernu zentralak Generalitateari zerga berezien hazkundera eskaintzen dio, %40tik %58rako hazkundera, eta aldi berean estatuko Zerga Agentziak argitaratu zuen 2003tik 2004ra Katalunian zerga horien bilketak behera egin zuela %21, 977 miloi biltzetik 77 miloi biltzera pasatu baitzen ([www.mineco.es](http://www.mineco.es)): nola egiazta dezakegu aipatutako jaitziera hori Kataluniako Zerga Agentziak ezin baditu bilketari buruzko datu guztiak eskuratu?

6. taulak 2003an finantzatze sistema autonomikora lotutako Kataluniako baliabideak dituzue, eta 7. taulak finantzatze sistema autonomikora lotutako araubide komuneko baliabideak biltzen ditu. Taula horretan ez dira lurraldeen arteko konpentsazio funtsa, nahikotasun funtsa eta Europako funtsak kontuan hartu, ezta gobernu zentralak lurraldeka duen gastu publikoa eta inbertsio publikoa ere.

2002. urterako, adibidez, Extremaduraren biztanleko zerga-gaitasuna (bildutako zergak) ia Kataluniako biztanleko zerga-gaitasunaren erdia zen: 100 balioak Estatuko batezbestekoa baldin bada, 44 eta 77 ziren (2. grafikoa). Gobernu zentralak abian jartzen duen banatzeko prozesu bizia dela-eta, biztanleko baliabideen azken egoera alderantzizkoa izango da, ezen Extremadura 104 indizera heldu baita eta Kataluniaren indizea 84 da (estatuko batezbestekoa 100). Hori guztiaz gain, lurraldeen arteko konpentsazio funtsa, nahikotasun funtsa eta Europako funtsak batzen baditugu, azkenean Extremadurak 144 indizea izango du eta Kataluniak aipatutako 84, ez baitu funts horietan parte hartzen. Eta Madrili dagokionez, finantzazio autonomiko nahikoa ez duenez, egoera hori urtero-urtero estatuaren inbertitze-jardueraren bidez orekatzen da, baita administrazio zentraleko 400.000 funtzionarioen burutzaren eraginagatik ere; horregatik Madrilgo lurraldeko gobernuak askotan bertako biztanleei zerga batzuk gutxitu ahal dizkie.

Estatu berriaren 206. artikularen 3. puntuak dio Estatuak soilik finkatuko dituela nibelazio eta solidaritate mailak, eta ez du Estatuaren eta Generalitatearen arteko aldebiko harremanetarako aukerarik uzten, nahiz eta Kataluniako Parlamentuak onetsitako Estatutuan harreman hori aurreikusi. Gobernu zentralak, Zerga eta Finantza Politikako Kontseilu

Nagusiaren testuinguruan, jarraituko du finkatzen Generalitateak azkenean zer baliabide izango dituen bere esku.

Estatutu berriaren 206. artikulua 5. puntuak dio 1. ataleko gastu-beharrak finkatzeko kontuan izango direla biztanleak eta biztanle-dentsitatea aldagai nagusi moduan, orain arte jasotzen zen bezala. Hobekuntza txikia egin dute ezen koste diferentzialen zuzenketa sartu baitute (inflazio handiagoa Katalunian) eta inmigrazioa aipatzen baita (Katalunian inmigrazioa ere handiagoa da). Baina kexatu egin behar gara ezen esplizituki ekitate irizpideak baino ez direlako aipatzen, eta alde batera utzi dituztelako efizientzia ekonomikoko irizpideak, Kataluniak beti eskatutakoak, adibidez BPG edo esportazioak. Beraz, eredu berarekin jarraitzen dugu.

Edozein modutan ere, ondokoa da azken testuan ontasuna baloratzeko galdera: ea estatu berriak Generalitateko finantzaketa babesten duen Madrilen egon daitekeen gehiengo osotik. Berrito ere Baltikoa izozten bada, Generalitateak baliabide urriak izango ditu nahiz eta Estatutu berria izan.

## **5.- Zerga Agentzia baldintzatua**

Estatu berriaren 204. artikulua Kataluniako zerga agentziaz hitz egiten du. 1. puntuak Katalunian sortuko duten Zerga Agentziari esleitzen dio berezko zerga guztien kudeaketa, bilketa, kitapena eta ikuskaritza. Gaur egun arte Generalitateko Zergen Zuzendaritza Nagusiak egiten zituen aipatutako zerga horien gaineko (oinordetzak, dohaintzak, ondare eskualdaketak, jokoaren gaineko tasak eta ondarearen gaineko zerga) funtzio horiek guztiak; hori dela eta, estatutu berria indarrean sartu eta

berehala plaka aldaketa hutsa egin zuten: lehen aipatutako zuzendaritza nagusi hori Kataluniako Zerga Agentzia izango zen oraindik aurrera.

204. artikulua 1. puntuak, halaber, ondokoa finkatzen du: delegazioz, Kataluniako Zerga Agentziak lagatako estatuaren zergen gainean (BEZ, PFEZ eta zerga bereziak: azkenean sozietateen gaineko zerga berriz ere lagatako zergen saskitik kanpo gelditu da), kudeaketa, bilketa, kitapena eta ikuskaritza egin ahal izango duela, betiere gobernu zentralak Generalitateari aipatutako zerga horiek osotasunean (zergaren %100 lagatzea) lagatzen badizkio.

Kataluniako Zerga Agentziarako estatuaren zerga horien gainean aipatutako funtzioak egikaritzeko aukera jasotzen bada ere, Kataluniako estatutu berriaren proposamenak jaso ez duenez Kataluniako gobernuari bilketaren %100 lagako zaiola ezta aipatutako zerga batean ere (nahiz eta 2005ean ematen zuen PFEZ osoa Generalitateari lagako ziotela), epe ertainean ez da aldaketarik egongo Kataluniako gobernuaren finantzaketaren garrantzi handiko alderdi horretan. Kataluniako zergen saskia araubide komuneko gainontzeko autonomia erkidegoetan kopiatzeko beharraren gainditu ezinezko murriztapena dela-eta, (batez ere Andaluziako Chaves presidentearen aurkakotasunagatik), ezinezkoa zaio Kataluniako Zerga Agentziari sortzea hasieratik lehenengo zerga bat eskuan duela.

Horrela bada, PFEZren kudeaketa garestia da, jendearentzat onarpen txikiena duen zerga da, lan handiena eskatzen duena da eta zergadunak gehien ikusten duen zerga da (BEZa baino gehiago), eta hala eta guztiz ere estatutu berriak ez dio utziko Kataluniako Zerga Agentziari bidea egiten hasten lehengo Zergen Zuzendaritza Orokorrek estatutu zaharrarekin zuen garrantzi handiagorekin. Sau-ko estatutu zaharrarekin ia 30 urtez gertatu den

bezala, zerga garrantzitsu baten bilketaren %100 lortzea, Kataluniako alderdi politikoeek Madrilgo Diputatuen Kongresuan presioa egiteko izango duten gaitasunaren menpe egongo da.

Baina 204. artikulua 2. puntuak Katalunian Estatuaren Zerga Agentzia kontsaktatzen du, harentzat bakarrik gordetzen baititu estatuaren zergen gainean lehen aipatutako kudeaketa, bilketa, kitapena eta ikuskaritza funtzioak. Artikulu hau 1979ko Estatuarekin konparatuz gero, ez dago inolako aldaketarik edo hobekuntzarik Sau-ko Estatuaren 46.3 artikuluekiko. Aldiz, Kataluniako Parlamentuak egindako Estatutua konparatuz gero, 205.1 artikulua Kataluniako Zerga Agentziari esleitzen dizkio Katalunian jasandako zerga guztien kudeaketa, bilketa, kitapena eta ikuskaritza funtzioak, zerga lokalak alde batera utzita.

204.2 artikulua bi urteko epean estatuaren zerga agentziaren eta Kataluniako zerga agentziaren arteko partzuergo paritario bat sortzeaz ere hitz egiten du; partzuergo hori Kataluniako Zerga Administrazio bakarra bihur "daiteke" Gobernu zentralaren eskuzabaltasunak horrela erabakitzen badu. Artikuluak dio partzuergoa zerga administrazio bakar "bihur daitekeela", eta ez "bihurtu egingo dela". Gainera esaten du Kataluniako Zerga Agentziak partzuergoan soilik parte har "dezakeela" Estatuaren Zerga Agentziarekin batera eta berdintasunezko baldintzekin. Partzuergoa "Katalunian duten" zerga administrazio bihur daiteke (ez "Kataluniako" Zerga Administrazioa). Estatutu berriak ez du eperik edo sor dezaketen partzuergoaren funtziorik aipatzen.

Nazioarte mailan ez dago gobernu zentralen eta lurralde-gobernuen arteko zerga partzuergo paritarioei buruzko aurrekaririk, ezen herrialde federaletan lurraldeetako gobernuek biltzen baitituzte zerga garrantzitsu gehienak, Alemanian gertatzen den bezala: Länderretako lurralde-

governuek biltzen dituzte zerga garrantzitsu guztiak, eta Berlineko governuak garagardoaren gaineko zerga berezia baino ez du biltzen. Québecen zergadun guztiek urterako bi errenta aitortpen egiten dituzte, bat Kanadako gobernuarentzat eta beste bat Québeceko gobernuarentzat.

Araugintzako gaitasunarekin antzeko zerbait geratzen da. Moncloako Estatutuaren 203. artikulua Estatuari esleitzen dio araugintzako eskumena, eta Estatuak berak erabaki dezake eskumen hori Generalitateari ematea partzialki lagatuko zergetarako. 1979ko estatutuak ez zuen araugintzako gaitasuna aipatzen, eta iazko irailaren 30ean onetsitako Estatutuak esaten zuen Generalitateak araugintzako gaitasuna zuela Kataluniari jasandako estatuaren zerga guztien gainean. Antoni Zabalkak berak, PSOErekin Ogasuneko Estatu Idazkari izandakoak, zerga erantzukizuna dela-eta Kataluniako estatutu berriaren azken bertsioa kritikatu zuen, ez baitu inolako aurrerapenik jaso kapitulu garrantzitsu horretan (*El País*, 2006.03.06).

## **6.- Bermatu gabeko estatuaren inbertsio publikoa**

Inbertsio publikoa ezinbestekoa da lurralde baten hazkunde ekonomikorako, gaur egun sektore publikoak garrantzi handia baitu ekonomian. Orain dela urte batzuk, *Revista Econòmica de Catalunya* aldizkariak 1992ko joko olinpikoen eragin ekonomikoari buruzko artikulua bat argitaratu zuen (18. zk.): azpiegituretan 0,5 bilioi pezetako inbertsio publikoa eta zenbateko bereko inbertsio pribatua egin zen, eta inbertsio horiek Kataluniako hurrengo urteetako BPG handitu zuten 3,4 bilioi pezetatan (efektu biderkatzailearen bidez).

Kataluniako estatutu berriaren hirugarren xedapen gehigarriak dio Estatuak Katalunian egiten dituen azpiegitura-inbertsioak (lurraldeen arteko

konpentsazio funtsa alde batera utzita), parekatu egin behar direla Kataluniako ekonomiak Estatu osoaren BPGn duen pisuarekin (%18,5). Estatutu berriak bakarrik zazpi urteko konpromiso-epa finkatzen du, eta aldiz Kataluniako Parlamentuak egindako Estatutuan konpromisoa amaigabea zen. Gainera azken estatutuak ez du aipamenik egiten Katalunian Estatuak egindako inbertsioen ondoriozko defizit historikoak konpentsatzeari buruz, eta Kataluniako merkataritza ganberek defizit hori 7.500 milioi eroko baino gehiagokoa dela esaten dute.

Aipatutako xedapen gehigarri hori beste aldaketa garrantzitsu bat du Kataluniako parlamentuak onetsitako testuarekiko: aipatutako %18,5 kopurua estatuaren inbertsioen oinarriaren gain aplikatuko da..., behin oinarri horretatik lurraldeen arteko konpentsazio funtsa kenduta (LKF). 2006. urtean gobernu zentralak 12.467 milioi euro inbertituko ditu azpiegituretan, eta kopuru horretatik 2.306 euro (%18,5) Katalunian inbertitu beharko lituzke estatutu berria hitzez hitz aplikatuz gero. Kopuru horretatik aipatutako funtsa kendu beharko genuke: 2006an LKF txikia izan zen, eta 1.159 milioi euroekin hornitu dute soilik. Kataluniako %18,5 aplikatuko genuke inbertsioen eta funtsaren arteko aldeari: 11.308 milioi 2006an, eta beraz 2.091 milioi euro dagozkie.

*El País* egunkariak 2006ko otsailaren 7an argitaratutako berri baten arabera, gobernu zentralak aztertzen zegoen hurrengo urteetan LKF biderkatzeko aukera. Zapatero presidenteak uste du "orain LKFri garrantzi handiagoa eman behar zaiola solidaritate funts nagusia bihurtuko baita". Horrela bada, hurrengo urteetan LKF hiru edo lau aldiz biderkatuz gero, Estatuak Katalunian egiten dituen azpiegitura-inbertsioak oso urrun egongo dira Kataluniako BPGak estatu osoan izango duen pisutik.

Kataluniako estatutu berria indarrean dagoen arren, 2007ko Estatuaren Aurrekontu Orokorren arabera, Estatuak autonomia erkidegoetan egingo dituen inbertsioen artean, Kataluniak erregionalizatzeko moduko inbertsioen %13,9 jaso du, hau da, 2.958 milioi. Estatutua aplikatzeko lehen urtean, beraz, Estatuak Katalunian zuzenean egindako inbertsio-ahaleginak behera egin zuen 2006. urtearekiko (aurrekontuetan Kataluniarako %14,6 inbertsioa jaso zuten), eta azken sei urteetako inbertsiorik txikiena izan zen. Kopuru horiek alde batera utzita, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eta *Conselleria d'Economia i Finances*-ek 2006ko urrian adierazi zuten, 2007ko Estatuaren Aurrekontu Orokorrek aurkezterakoan, ondo baino hobeto betetzen zutela estatutu berria. Aldiz beste ahotz batzuek esan zuten hirugarren xedapen gehigarria ez zutela betetzen ez baitaude ados Estatuak azpiegituretan inbertitzeari buruz emandako definizioarekin (Bartzelonako Merkataritza Ganbera). 2007ko uztailean Antoni Castells kontseilariak azkenean jendaurrean onartu zuen horixe bera.

Hirugarren xedapen gehigarriak jasotzeko inbertsioaren kontzeptua hitzez hitz interpretatuz gero, hau da, Estatuaren Aurrekontu Orokorretan jasotako erregionalizatzeko moduko inbertsioak, Kataluniak 2007an 4.012 milioi jaso ditzake guztira (%18,5). Baina Estatuaren Aurrekontu Orokorrek soilik jasotzen dituzte Sustapen eta Ingurumen Ministerioek azpiegituretan egindako inbertsioak eta garraio eta ingurumeneko azpiegiturak finantzatzeko kapitaleko transferentziak (LKF kenduta). Azpiegituretan inbertitzeko definizio murriztaile honen arabera, Kataluniak 3.195 milioi jaso zituen. Dena dela, 2.604 milioi baino ez ziren (ia 2006ko kopuru bera) Sustapen eta Ingurumen Ministerioen azpiegitura-inbertsioetarako, gainontzeko 591 milioi azpiegitura-inbertsioak kontsideratu ezin daitezkeen partida batzuetan sartzen baitziren.



Azpiegiturak direla-eta egindako definizio murriztaile hori erabilia (eta ez ditu barnean hartzen, adibidez energia azpiegiturak, telekomunikazio azpiegiturak, logistika azpiegiturak, kultura azpiegiturak, azpiegitura sozialak, osasun azpiegiturak, zientzia azpiegiturak, teknologia azpiegiturak edo etxebizitzarekin zerikusia duten azpiegiturak), Estatuak ondorioztatu zuen bete egiten duela Estatutuaren hirugarren xedapen gehigarria. Guztiz arbitrario da soilik garraio eta ingurumen alorreko azpiegituren inbertsioak kontuan izatea; horrela bada, interpretazio bi horien arteko aldea dela-eta, Kataluniak 2007an ez zituen azpiegitura-inbertsioetarako 1.054 milioi jaso, eta kopuru horren zati bat Kataluniako trenbide-lineak hobetzeko erabil zezakeen, eta horrek eguneroko joan-etorrietan trenbidea erabili behar duten pertsonen sufrimendua arinduko luke.

Andaluzian, berriz, Estatuak bere gain hartu du biztanleen arabera inbertitzeko konpromisoa. Kasu honetan ez dute Katalunian aplikatutako definizioa erabiliko eta erregionalizatzeko moduko inbertsio guztiak kontuan hartu dituzte. Andaluzian beste irizpide bat aplikatuko dute (biztanleak), ez Katalunian aurreikusitakoa (BPG), eta kalkuluak bi oinarri ezberdinen arabera egingo dira: Andaluzian erregionalizatzeko moduko inbertsio guztiak hartu dira oinarritzat eta, Katalunian berriz, bakar-bakarrik kontuan hartzen dira Sustapen eta Ingurumen Ministerioen erregionalizatzeko moduko inbertsioak, eta gainera kapitaleko transferentzien eta LKFren prozedura ezberdina izango da. Krudelak bagara, esan dezakegu Kataluniakoak hobeto egongo liratekeela Andaluziako xedapenarekin Kataluniakoarekin baino. Estatuaren inbertsio guztien %13,9 jaso beharrean, Kataluniak %16 jasoko luke (Kataluniako biztanleek Estatu osoan duten pisua), hau da, 456 milioi gehiago.

## **7.- Zehaztu gabeko ordena-printzipioa**

Alemaniko Konstituzio Auzitegiak 2004. urtean emandako epaiak, estatu federalen artean lurralde-solidaritatearen zerga-fluxuek jarraitu behar dituzten printzipioei buruzkoak, argia jarri zuen finantzazio autonomikoko eredu berri horretan. Laburbilduz, Auzitegiak dio Alemaniako estatu federalek “nahi dute banaketa-sistema egin dezatela, baina ezin dutela estatuen artean banatzeko prozesua baino lehen eta ondoren dagoen ordena aldatu”. Hau da, urte batean Bavariak guztion kutxan ekarpen handiena egiten badu, ez du inolaz ere, banaketa-sistema edozein izanda, beste estatu ordaintzaile edo jasotzaile batek jasoko Bavariak baino erabiltzeko moduko baliabide gehiago banaketa egin ondoren. 4. taulak erakusten du Katalunia aberastasunaren sorrerari dagokionez (biztanleko BPG) 2004an laugarren postuan zegoela eta, aldiz, aberastasunaren banaketari dagokionez bederatzigarren postuan zegoela eros ahalmenaren parekotasuna kontuan izanda (biztanleko errenta erabilgarria).

Horrela bada, 206.5 artikulua ordena-printzipioa ezarri zuen, Kataluniako lurraldeen arteko solidaritatearen gehiegikeriak mugatzeko helburuarekin: “Estatuak bermatu egin behar du nibelazio mekanismoek ez dutela, inolaz ere, Kataluniak nibelazioa egin baino lehen autonomia erkidegoen biztanleko errenten ordenazioan zuen posizioa aldatuko.”

Baina 2006ko otsailean Guillem Lópezek antzeman zuen Moncloan artikulua horren zuzenketa txiki baina erabakigarri bat: ordena-printzipio horren definizioa benetako terminoetan egin behar dela, hau da, lurraldeen prezioen mailak kontuan izanda. Biztanleko errentak ez badira “erosteko boterearen parekotasunaren arabera” adierazten (kontuan izanda, adibidez, Aurrezki Kutxen Fundazioak, FUNCASek, diola Bartzelonako prezioak Badajozekoak baino %30 handiagoak direla), Generalitatearen finantzaketa benetan babesteko moduko “euspen dike hori” (artikulu horrek

sortzen du dikea) ez da eraginkorra izango. Ez bada Kataluniako prezioen ezberdintasuna kontuan hartzen, Espainiako testuinguruan aipatutako rankingean postu gutxiago galduko ditu: ez da laugarren postutik lehen aipatutako bederatzigarren postura jaitsiko, bosgarren postura baizik.

### **Ondorioa: Kataluniako finantzatze berria? Galdera gehiegi**

Hurrengo urteetan dagoeneko onetsita dauden estatu berrien zabalerak eragina izango du Espainiako estatu autonomikoaren etorkizuneko garapenean. Kataluniako estatutu berriaren garapenak, autonomien Espainian historikoki gertatu den bezala, araubide komuneko autonomien arteko etorkizuneko garapenerako jarraibideak ezarriko ditu, bai erkidego historikoak deitutakoetarako, bai gainontzeko erkidegoetarako, "kafea guztiontzat" gogo handiz defendatzen duten horietarako. Gainera, Kataluniako estatu berria sortzeko prozesua luze eta bihurri egin zuten nahita, eta autogobernu mailara igotzearen aurkakoa izan zen: estatutuaren onespina atzeratzen zen egun bakoitzean, handiagoak ziren bertan behera uzteko presioa eta kostuak, eta azkenean onetsitako aurrerapenak urriegiak izan ziren.

Kataluniako Generalitatearen finantzatze autonomikoaren aukerei dagokienez, zaila da zehaztasunez jakitea zer itxaron dezakegun: gaur egun akademikoek honako puntu hauen zehaztasun txikia baino ezin dugu agerian utzi:

- Estatutuaren artikuluek araugintzako lehentasuna izan dezaketela autonomia erkidegoen finantzatze lege berria (LOFCA) izango denaren gainean.

- Xedapen jakin batzuek anbiguotasun handia sortzen dute interpretatzeko orduan, adibidez ordenari buruzko klausulak (sartu duten estatutuetan).
- Lurralde batzuetan Estatuaren inbertsio zuzenari dagokionez gutxienezko batzuk exijitzeko aurreikuspenaren konstituzionaltasuna – edo ez-, adibidez Katalunian gertatzen den bezala.
- Nibelazio mekanismoen eta solidaritate mugen zehaztapena, gobernu zentralak beti eremu honetan izan duen diskrezionaltasuna gutxitzeko helburuarekin.

Hori guztia dela eta, oso ausarta da autonomia estatutu berriek ekar ditzaketen aurrerapenak baloratzea, eta agerian uzten du, batzuek diotenaren aurka, oso gutxi aurreratu dugula Espainiako estatu autonomikoaren egonkortasuna ekarriko duen itun federala lortzeko. Konstituzio Auzitegian Kataluniako estatutu berriaren aurka zenbait gatazka irekita izateak, eta kontuan izanda auzitegi horrek federalismoaren aldeko joera eskasak dituela, agerian uzten digu Kataluniako estatutu berriak oso benetako balio txikia izan dezakeela.

Gainera, eskumen-eremuetan ikusten dugunaren aurka, finantzatze-alorrean Kataluniako estatutuaren zehaztasuna askoz ere txikiagoa da: Generalitatearen eskumenak zehaztasun handiarekin definitzen badira ere, ez da finantzatze berriaren edukien zehaztapen argia egiten, eta alderdi askok zenbait interpretazio izan ditzakete, politika-egoeran bakoitzak duen indar-posizioaren arabera.

Hori bereziki larria da lurralde-banaketa eremuan estatuak mantentzen duen diskrezionaltasunari dagokionez, eta baita zerga alorreko elkarrekiko erantzukizun handiagorekin eta estatuaren zergetan esku-hartze portzentaje hutsak handitzearen artean dagoen nahasteari dagokionez: zerga horiek biltzeko zerga agentzia autonomikorik ez dagoenez, BEZ edo PFEZ zergetan parte hartzearen saski autonomikoa guztiz birtuala da. Horrela

bada, honako kasu hau eman daiteke: aipatutako portzentajeak gora egitea eta aurrekontu autonomikoa aldiz behera, Miguel Ángel Fernández Ordóñezek, Ogasuneko Estatuko Idazkariak, 2006ko urtarrilean Moncloan PSOE eta CiU artean estatutuari buruzko eztabaida luzearekin amaitzeko egindako ituna baino lehenago esandakoaren arabera: “Estatuaren nahikotasun funtsa negatiboa izango da oraindik aurrera Kataluniarako” (*Expansión*, 2006.01.26).

Lurraldeen arteko zerga-fluxuei dagokienez, Consell Consultiu de la Generalitatek esaten duenaren arabera (botoen gehiengoa 4 eta 3 2005eko irailaren hasieran egindako bozketaren arabera: PSC-PSOE+PP+ICV eta CiU+ERC alderdien aurrean), fluxu horiek estatuaren eskumen dira soilik. Beraz, logikoa denez, gobernu zentralak ez du zerga-fluxu horiei buruz eztabaidatu nahi erkidego historiko batzuekin aldebiko negoziazioa eginez, nahiago du alderdi anitzeko eztabaida egitea gain hartu ditzakeen konpromisoak arintzeko.

Zerga federalismoaren eskema ohikoenetan argi dago herritarrek ordaintzen dituztela zergak, baina bi jurisdikzioetan ordaintzen dituzte: zentralari eta lurraldekoari, ezen horietako bakoitzak jatorrizko zerga-gaitasun batzuk baititu, eta gaitasun horiek ez dira transferentzien *ad hoc* araubide baten ondoriozkoak; transferentzia horiek zerga-botere unitario eta zentralizatu bakarrak bildutako zergetan ustez eta itxuraz duten parte hartzearen ondoriozkoak dira.

Itun federal batek alde zuzeneko aldebiko edukia du, eta horren ostean egin beharko da beste lurraldeetarako zabalketa; lehen ituna ez da bigarrenaren menpe egoten. Alde zuzenetik badakigu dena ez dagoela baldintzatuta banatzeko mekanismo batzuekin, Senatuan erabakitzen ez diren batzuekin (lurraldeko ganberan baita), botere exekutiboan Zerga eta

Finantza Politikako Kontseilu Nagusiaren bidez erabakitakoetan baizik, non gobernu zentralak nagusitasuna duen gehiengo osoarekin. Kataluniako estatutu berriak Generalitaterako aurreikusten duen finantzaketan aurreko ereduaren joerarekin jarraitzen da, eta eredu hori hurbil dago gastu publikoaren deszentralizaziotik, eta oso urrun dago federaltzat hartzeko gutxienez egin beharko den zergen sarreren banaketa eraginkorretik.

Azken 25 urte hauetan esperientzia txar asko izan ditugu Katalunian gobernu zentralak izan duen diskrezionaltasun eta arbitrariorotasunari buruz: edozeinek gobernatzen duela ere, Estatuak mota askotako modulazio arau aldarrikatu ditu une bakoitzean komeni zaionaren arabera. Nahita konplexu egiten den engranajea da, gardentasun txikiko ustezko lurralde-banaketa da eta, beraz, helburuei dagokienez zailtasun handiarekin ebaluatzeko modukoa da. Egia dena da azkenean diru publikoa gehiago inbertitzen dutela gastu arruntetan azpiegitura-inbertsioetan baino, eta , lan publikoa sortzeko erabiltzen dutela enplegu pribatua sustatu beharrean.

Guillem Lópezentzat LOFCA “zentrotik inguruko gastu-beharrak berak nahi duen moduan balioztatzen dituen *Anaia handi* baten isla da, objektibotasuneko salmenta marketina erabiltzen du, lurralde bakoitzaren presioen ondoriozko aldagai batzuen (adibidez orografia, landa izaera edo dispertsioa) eta hurbilketa enpiriko zalantzagarriko neurri batzuen arabera sortutakoa”. 2006an baieztatu zuen bezala, “aldez aurretik LOFCARI buruzko itun bat ez badago, Kataluniako Estatutu berriaren finantzatze autonomikoa inora ez doan bidea da”.

Amaitzeko, ados nago Antoni Zabalezaren iritziarekin (2007), hark esaten baitu Generalitatearen ereduaren aldaketa baino, Kataluniako Estatutu berriak finantzatze eredu batzuk edo sorta bat definitzen duela, eta interpretazio asko onartzen dituztela eredu horiek: adibidez zerga

federalismoaren mekanismo batzuetara hurbiltzekoa (Espainiako gobernu zentralak interpretazio eskuzabala egiten badu) edo araubide komunekoa autonomia erkidegoetan baliabideak banatzerakoan gobernu zentralaren diskrezionaltasuna sendotzekoa (interpretazio murriztailea egiten badu).

Hori dela eta, Madrilgo eta Bartzelonako parlamentuetako gehiengo politiken jolasaren arabera, etorkizunean Kataluniako Generalitatearen finantzazio autonomikoa hobetu ahal izango da eta baita okerragotu ere. Kataluniako Estatutu berriaren helburua Generalitateko finantzazioak Madrilgo Diputatuen Kontseiluan izan dezakeen aurkako gehiengo osoengandik babestea bazen (horixe da Kataluniako alderdi politikoek eta gizarte-eragileek gehien erabili duten justifikazioa autonomia estatutuaren testua justifikatzeko), babes hori zalantzagarriagoa da azken testua ikusita.

### **Eranskina: Kataluniak Espainiako Estatuarekin duen zerga-defizitaren ondorio makroekonomikoak.**

1997-2003 aldiaren ezaugarria izan da informazio estatistiko ofizialik ez dugula izan, lurraldeko Estatutuko ministerioek egindako inbertsioa eta gastu publikoa zein den jakiteari buruzko informazioa alegia. "Gardentasuna demokrazia da" oinarritzko printzipioa kontuan izanik, PP alderdiak ohore txikia egin dio alderdi liberaltzat aldarrikatzeari, eta gainera Zerga Agentziak (munduko sistema informatiko onenetako bat du) kontrolatzen ditu zergadunen soldatak, interesak, dibidenduak eta alokairuak, baita horien azken zentimoa ere. Norbaitek ministerioetako web orrietan sartuz gero eta ikusi nahi badu iaz nola gastatu ziren 259.000 euro, informazio hori ez du eskuratzeko moduan izango.

Estatu Batuetan Harvard Universityk urtero argitaratu egiten ditu estatu guztiek gobernu federalarekin duten zerga-balantzak: 120 orrialdeko liburu bikaina da, eta 15 urteko denborazko seriea sartzen du; zehaztu egiten du zer biltzen duen, eta gastu-moten arabera bereiztuz, gobernu federalak estatu bakoitzean zer gastatzen eta inbertitzen duen. Zerga-balantzak argitaratu baino lehen ere, aurretik beste pausu bat eman beharko da: Estatuko ministerioek urtero derrigorrez argitaratu beharko lukete azkenean egin duten (eta ez proposatu duten) inbertsiori eta gastu publikoari buruzko lurraldean araberako txosten bat, onartuta dituzten betebeharrei buruzko informaziotik abiatuta. Informazio hori interneten ikusteko moduan egon beharko litzateke, zabaldu baino lehen ezagutu dezagun: Eurostatek, adibidez, behar bezala betetzen du estatistika ofizialak argitaratzeko egutegia.

Katalunian Espainiako Estatuarekiko zerga-harremanari buruzko ikerketen ehun urteko ohitura zabala dugu<sup>1</sup>: Francesc Flos (1896), Guillem Graell (1902), Joan Crexells (1923), Josep Llord (1927), Carles Pi Sunyer (1929-1959), Ramon Trias Fargas (1960), Jacint Ros Hombravella (1966 eta 1974 Joan Sardàrekin), Josep Maria Bricall (1978), Antoni Castells eta Martí Parellada (1983), Arcadi Oliveres (1991), Montserrat Colldeforns (1995), Esther Martínez eta Guillem López-Casasnovas (2000), beste batzuen artean, saiatu dira kalkulatzeko Kataluniak zer ekarpen egiten duen Espainiako Estatuan. Egoera hori gaur egun iraganean baino presazkoagoa da, ezen 1975ean gastu publikoa Espainiako BPGren %10 baino ez bazen ere, gaur egun Espainiako sektore publikoak herri garatu baten aberastasun-sorreraren alderdi garrantzitsu bat kontrolatzen baitu (BPGren %40 2003. urtean). Halaber, sektore publikoak botere arautzaile handia du, eta bere

---

<sup>1</sup> XX. mendean Kataluniak Espainiako Estatuarekin zuen defizitari buruzko ikuspegi historikoa izateko, ikusi Francesc Rocak "Revista Econòmica de Catalunya"n idatzitako artikulua (2000).



konplizitateak edo axolagabetasunak kaltetu edo hobetu ditzake sektore ekonomiko eta lurralde oso batzuk (Tremosa, 2004).

Espainiako Estatuko gainontzeko herrialdetan, berriz, sektore publiko zentralak egiten dituen lurralde-fluxuen garrantziari buruzko azterketak askoz ere berriagoak dira, eta orain arte argitaratu duten lanik zorrotzena "Las balanzas fiscales de las CCAA, 1991-1996" liburua da (Castells eta beste batzuek, 2000). PSOEren aurreko gobernuaren azken urteetan Zerga Azterketen Institutuak bidali zuen lan handi hori, eta honek esku-hartze orokorrak kalkulatzeko beharrezkoa zen informazio publiko guztia eman zuen. PPko gobernuarekin, berriz, Institutuak ez zuen argitaratu, eta Ariel argitaletxeak egin zuen azkenean argitarapena.

Bitxia da ikustea nola Madrilen (prentsa, fundazio pribatuak, ministerioak) ez duten inoiz lan zorrotz hori aipatzen, nahiz eta sektore publiko zentralaren esku-hartze orokorretan likidatutako informazioak erabiltzen dituen azterketa bakarra izan. Gainera, nazioarte-mailan onartutako zerga-balantzen kalkuluen irizpide biak erabiltzen dituen lan bakarra da, gastuaren lurralde-mailaketari buruzkoa eta Estatuaren hiriburua duen erkidegoan sektore publiko zentralak egiten duen gastu eta inbertsio publikoari buruzkoa, hau da, diru-fluxuaren eta etekin-fluxuaren irizpideak edo ikuspuntuak deitutakoak. Madrilen etekin-irizpidetik soilik ematen dira zerga-balantzak eta, beti diru-fluxuak baino emaitza hobekak ematen ditu Estatuko hiriburuarentzat.

Madrilgo erkidegoak Estatuarekiko duen zerga-balantza kalkulatzeko, hasteko eta behin, bildutako zergen "egoitza efektua" garbitu beharko genuke: enpresa askok fabrikak beste autonomia erkidego batzuetan dituzte, baina zerga-egoitza Madrilen dute, eta zergak Madrilgo Erkidegoari egozten zaizkio. Horrela bada, 2003. urtean, adibidez, Zerga Agentziak

erkidego horretan 57.372 milioi euro bildu zituen, Agentzia horrek guztira dituen 127.963 milioiren %45 da; kopuru hori EInren arabera 2003an Madrilgo Komunitateak Espainiako BPGri emandako %17,53 kopurua baino askoz ere handiagoa da. Beraz ondoko arriskua dugu: agian Madrilgo Komunitateari egotzitako sarrerak benetan emandakoak baino handiagoak izatea.

Baina Madrilgo Erkidegoaren zerga-saldoekiko benetako desadostasuna, kalkulatzeko erabili duten metodologiaren ondorioz sortzen da, eta Estatuaren gastu publikoa erkidegoan egozteari buruz hitz egiten du. "Diru-fluxuaren" irizpidearen arabera, gastu publikoa gastua benetan egin den lurraldera egotzi beharko da: Antzoki Erreala, adibidez, Madrilen eraiki badute, kostu osoa Madrilgo Komunitateari egotzi behar zaio. Baina "etekinaren" irizpidearen arabera, aldiz, gastu publikoa horri etekina aterako dioten lurraldeen artean banatuko da: Antzoki Erreala espainiar guztientzat baldin bada, gastua autonomia erkidego guztien artean banatu beharko da.

Horrela bada, Madrilgo Erkidegoak sektore publiko zentralarekin duen zerga-defizita, bakarrik etekinaren irizpidearen arabera lortzen da, eta horrek berekin dakar gainontzeko autonomia erkidegoei egoztea lurralde horretan benetan egiten diren gastu publiko asko eta asko. Pentsatu, adibidez, hiriburuan zer nolako inbertsio handiak egiten diren azpiegitura publikoetan edo Madrilen diren 400.000 funtzionarioen soldatak ordaintzeko. Gastu publiko erraldoi hori neurri handi batean Madrilgo Komunitateari ez egozteari (bertan gastatzen baitute gehiena) eta gainontzeko autonomia erkidegoen artean banatzeari esker lortzen da Madrilgo zerga-defizita Kataluniakoa baino zertxobait handiagoa izatea (Alcaide eta Alcaide, 2001, 2002, 2003). Kontuan izan behar dugu etekinaren irizpideak beharrezkoa duela hiriburuaren gastu publikoen onuradunei buruzko hipotesiak finkatzea. Eta Castellsek (2000) zein De la Fuentek (2001) ondokoetaz ohartzen

gaituzte, hurrenez hurren: “onuradunei buruzko hipotesiak finkatzerakoan arrisku garrantzitsuak daudela” eta “etekinaren irizpideari buruz arreta handiegia izateak kaltegarria izan daitekeela, zerga-saldoen interpretazioa zailtzen baitu eta azterketaren subjektibotasuna modu arriskutsuan handitzen baitu”.

Zerga-balantzak kalkulatzeko zein den irizpide edo ikuspuntu egokienari buruz eztabaida metodologiko horretan ari garela, interesgarria da Kataluniako Generalitateak 2005eko urtarrilean deitutako akademiko-talde baten jarrera ezagutzea (Kataluniako Generalitatea, 2005: *La balança fiscal de Catalunya amb l'Administració Central*)<sup>2</sup>, horri buruzko irizpen bat eman baitu. Horrela bada, ikuspuntu bat edo bestea erabiliko da egin nahi den azterketaren arabera: diru-fluxuaren ikuspuntuak lurralde batean sektore publikoaren jarduerak sortu duen eragin ekonomikoa neurtu nahi du eta, aldiz, etekin-fluxuaren ikuspuntuak kalkulatu nahi du nola izan dezaketen eragina gastu-politikek gizakien ongizatean. Beraz, diru-fluxuaren irizpidea askoz ere zuzenago, zehatzago eta zorrotzagoa da aztertzeko zer nolako eragina duen sektore publikoak lurralde baten hazkunde ekonomikoan, eta etekin-fluxuaren irizpidea erabiliko da sektore publikoaren ekintza aztertzeko banaketari dagokionez.

Testuinguru horretan, Kataluniatik nola interpretatu dezakegu PP gobernua azken zortzi urte hauetan izan duen opakotasun osoa esku-hartze orokorren datuekiko, nahiz eta Diputatuen Kontseiluaren Nazioaren Estatuaren erabakiek, 1998 eta 1999koek, zenbait agindu eman zituzten zerga-balantzak kalkulatzeko eta jendaurrean jartzeko? Kataluniatik nola

---

<sup>2</sup> “Grup de treball per a l'actualització de la balança fiscal de Catalunya. Part Catalana de la Comissió Mixta de Valoracions Administració de l'Estat-Generalitat de Catalunya”. Ondokoek osatzen dute talde hori: Núria Bosch, Joan F. Corona, Joan Carles Costas, Marta Espasa, Guillem López, Eduard Rius, Joan Ramon Rovira, Xavier Sala-i-Martin, Joaquim Solé Vilanova, Ramon Tremosa, Maite Vilalta, Maties Vives eta Antoni Zabalza.

interpretatu dezakegu beti informazioa Madrilgo fundazio pribatuen esku uztea (FUNCAS)?, fundazio horrek erabiltzen duen moduaren arabera, Madril beti "lurraldeen arteko solidaritateko txapelduna" da eta ez du ezta kalkulatzeko metodologia ere zehazten. Guillem López-Casasnovasek (2004) arrazoia du esaten duenean "esan zertarako nahi duzun zerga-saldoak ezagutzera eta esango dizut zein den metodologiarik egokiena".

Baina erkidegoek sektore publiko zentralarekin zein zerga-saldo dituzten diru-fluxu kalkulatzeko metodoaren bidez aztertzen badugu, Castells, Bosch, Barberán, Ruiz-Huerta eta beste batzuen liburuak, lehen aipatutakoak, azken urte hauetan Espainian ikusten dugun lurralde-bilakaera desberdindu horretara hobeto egokitzen diren zerga-saldoak aurkezten ditu: 1991-1996 eperako EURAM (Arku Atlantikoko Euro Erregioa, non Katalunia, Valentzia eta Balearrak sartzen diren) baliabideen zergapeko garbi nagusizat agertzen da (Katalunia, batez beste urteko BPGren  $-7\%$ , Balearrak  $-7,5\%$  eta Valentzia  $-2,5\%$ ); Nafarroa eta Euskadi ere zergapeko garbiak dira epe osoan ( $-3,5\%$  eta  $-1,5\%$  hurrenez hurren); amaitzeko, Madrilgo zerga-balantzaren saldoak sektore publiko zentralarekin soilik Madrilgo urteko BPGren  $-0,09\%$  zerga-defizita du. Gaur egun Generalitateteko Ekonomia Kontseilari Antoni Castellsek kalkulatu du Kataluniako zerga-defizita Kataluniako urteko BPGren  $8\%$  eta  $9\%$  bitartekoa dela, eta Alcaide eta Alcaide egileek (2003, 2004) 2002 eta 2003 urteetarako Kataluniako BPGren  $10\%$  eta  $10,5\%$  bitartean dagoela diote. Arrazoia edozeinek izanda ere, ez al gaude gehiegizko drainatzearen eta geldotasun ekonomikoaren arteko harreman argi baten aurrean?

Espainian, berriz, 1995-2003 epe bitarterako FUNCASek soilik argitaratu ditu zerga-balantzak. Lurraldeen balantze ekonomikoetan egileek ez dute inoiz aipatzen aurkeztutako zerga-balantza horiek kalkulatzeko zer metodologia erabili duten, eta horrek garrantzi berezia du batez ere

Madrilgo zerga-balantzaren kasuan. 2002ko edizioan egileek eurek esaten duten bezala, Estatuaren gastuak egotzi dituzte probintzietako eta erkidegoetako BEGtik abiatuta, "metodo hori eztabaidagarria da, baina erabili behar izan da Estatuaren Administrazio Orokorraren Parte-hartzeari buruzko informaziorik ez zegoelako, bakarrik estatuko maila agregatuan likidatutako datuak argitaratzen baititu" (30. orrialdea).

FUNCASen 2003ko edizioan, eta 2002an argitaratutakoari dagokionez, egileek Kataluniako zerga-defizitari buruz egindako estimazioak gutxitu zituzten, inolako justifikaziorik eman gabe. Era berean, 2003ko edizioarekin metodologiaren buruz emandako ohar labur batean ez dute dagoeneko aipatzen Estatuaren Administrazio Orokorraren Parte-hartzea, ezta datu ofizialen gabezia ere, 2002an egin zuten moduan, eta esaten dute "FUNCASeko lurraldeko estatistika-kabineteak, ikerketaren arduradunak, bere gain hartzen duela *Lurraldeko Balantze Ekonomikoaren* itxiera osatzeko egin dituzten zenbait estimaziok iritzi pertsonaleko osagaien bat dutela" (5. orrialdea). Ez dagoenez likidatutako informazio ofizialik lurraldeka sektore publiko zentralak egin duen inbertitzeko jarduerari buruz, Katalunian jarraituko dugu pentsatzen zerga-balantzek Erreinuaren hobeto gordetzen den sekretua osatzen dutela.

10. taulak 2010ean Kataluniako zerga-defizita Espainiako Estatuarekiko gutxituz gero izango genituzkeen emaitzak jasotzen ditu. Literatura ekonomikoan zenbait teknika proposatu dira gastu publikoen programen eragina neurtzeko. Horrela bada, adibidez, Nordhausen lanean (2002) Irakeko gerrak Estatu Batuetan sortutako kostua kuantifikatzen da; Abadie eta Gardeazabal egileen lanean (2001) aztertu egiten da terrorismoak euskal ekonomian duen eragina; Sosvilla eta beste batzuen lanean (2001) erkidego-laguntzek Aragoiko ekonomian duten eragina aztertzen da; Sosvilla eta Herce egileek (1998 eta 1999) Europako funtsetatik datozen

laguntzek Espainiako Ekonomian duten eragina aztertzen dute; edo, amaitzeko, Herce eta Sosvilla egileen lanean (2002) 2007. urterako Espainiako trenbide-inbertsioek izango duten eragin ekonomikoa neurtzen da.

Atal honetan orain dela gutxi *Applied Economics* aldizkarian argitaratutako artikulu baten edukia laburtzen da (Pons eta Tremosa, 2005); etorkizunari begira Kataluniako ekonomiaren hazkundera simulatzen dute, eta osatuko du aurretik egindako Kataluniako zerga-defizitaren eraginari buruzko azterketa. Horrela bada, alde batetik, 1995 eta 1998 bitarteko Kataluniako defizitaren kopurua Kataluniako azpiegituretan inbertitzeko aukera izatekotan, Kataluniako 2000ko BPG %32 handiagoa izango litzateke (Ros, Tremosa eta Pons, 2003); beste alde batetik, Kataluniako ekonomia 1998. urtean urte horretako BPGren %39ko zerga-prezioa izatera heldu zen eta, aldiz, gastu publikoa Kataluniako BPGren %30,5ekoa izan zen; horren arabera, Kataluniako sektore publikoaren egoera "etengabeko atrofiazat" definitu dezakegu (Ros, Tremosa eta Pons, 2002).

Laurogeita hamargarren hamarkadaren amaieran, literatura ekonomikoan zenbait lan agertzen hasi ziren, eta azpiegitura publikoek herrialdeen eta lurraldeen produktibitatean zuten eragina aztertzen zuten. Gai hau planteatu duten lan gehienak ondokoan oinarritu dira: produktuaren elastikotasunaren kalkuluan kapital publikoarekiko ekoizpeneko funtzio baten bidez, normalean *Cobb-Douglas* baten bidez. Ekoizpen funtzio baten ekuazio bakarreko estimazio baten bidez kapital publikoarekiko ekoizpen elastikotasuna lortzen duten lan hauek, hala ere, zenbait kritika metodologiko jaso dituzte. Ikuspuntu honen muga nagusietako bat ondokoa da: aintzat hartzen dituzten aldagaian artean alde batera uzten dutela egon daitezkeen atzeraelikatze edo *feedback* efektuak, eta garrantzitsuak izan daitezke, ez baitute kontuan hartzen

ekoizpenaren hazkundearen eta kapital publikoaren hazkundearen arteko aldi baterako harremana egon daitekeela.

Muga hori gainditzeko helburuarekin, literatura ekonomikoan BPG, enplegua, kapital pribatua eta kapital publikoa sartuko duten ekuazioanitzeko denborazko serie batzuen teknikak erabiltzea proposatzen da (VAR ereduak). Eredu hauek denbora joan ahala aldagai horien artean sortzen diren harremanak antzemateko aukera ematen dute bulkadaerantzuna funtzioen bidez. *Feedback* efektu dinamikoak ezinbestekoak dira kapital publikoaren eta ereduaren sartutako gainontzeko aldagaien arteko harremana aztertzeko, aukera ematen baitute ikusteko kapital publikoak nola eragiten duen BPG, enplegu eta kapital pribatuan. Halaber, eta aldi berean, kalkulatu ahal izango dugu nola aldagai horiek eragina duten kapital publikoaren hazkundearen atzeraelikatzen den prozesu batean.

BPGrekiko inbertsio publikoaren hazkundeak izango lukeen eraginaren kalkuluan, zenbait metodologia erabil daitezke elastikotasunak neurtzeko. Atal honetan erabilitako metodologiak, VAR ereduetan oinarritutakoak, beste metodologia batzuk erabiltzearen ondorioz lortuko genukeen elastikotasuna baino elastikotasun handiagoa ematen digu. Hala ere, egile askok uste dute metodologia hau egokiena dela hazkunde ekonomikoari buruzko simulazio-mota hauek egiteko, kontuan izaten baitu ereduak kontuan hartzen dituen aldagaien arteko atzeraelikatze efektua. Efektu hori garrantzitsua izan daiteke, eta kontuan ez izatekotan agian elastikotasunari garrantzi gutxiegi emango genioke.

Horrela bada, lan honetan ondoko aldagaian kontuan izan dira: barne produktu gordina prezio egonkorrean, enplegua, kapital pribatua eta kapital publikoa. Estatistikako informazioa Kataluniako ekonomiaz ari da eta ereduaren estimaziorako 1965-1999 epea erabili da. Produktu eta

enpleguari buruzko informazioa *Espainiako Errenta Nazionala eta probintzien arabera banaketa izenekotik* atera dira, BBVA Fundazioak argitaratutakoa. Halaber, kapital pribatuko eta publikoaren serieak *Kapitalaren stocka Espainian eta autonomia erkidegoan izenekotik*, BBVA Fundazioak argitaratutakotik, atera dituzte. Azken kasu honetan Kataluniako ekonomiako kapital publiko eta pribatuen balioak estrapolatu egin dira 1999. urterako, Espainia osorako aldagai horiek duten balioetatik abiatuta.

Oso luzea ez den denborazko serie bat da, eta egoera hori larritu egin da BBVA Fundazioak ekoizpen eta enpleguari buruz emandako datuak bi urtean behingoak direlako. Baina ikerketa-eremu honetan Espainiako ekonomiari buruz aplikatutako lan gehienek, eta lehen aipatu ditugu horiek, muga hori ere badute eta antzeko denborazko serie batzuk erabiltzen dituzte (bai aintzat hartzen duen epeari dagokionez, bai oharren erabilgarritasunari dagokionez). Horrela bada, adierazi beharra dago VAR ereduak finkatu ondoren zenbait simulazio egin direla Kataluniako ekonomiaren hazkundeari buruz. Simulazio horiek egiteko prezio egonkorreko BPGko eta enpleguko serieak erabili dira, Kataluniako Estatistika Institutuak emandakoak<sup>3</sup>.

Eszenatoki baikorrean jarriz, Kataluniako ekonomiak Europar Batasuneko lurralde garatuenetara hurbildu ahal izango da biztanleko BPGri dagokionez (Erosteko Ahalmenaren Parekotasun terminoetan adierazita); eszenatoki ezkor batean, atzerapena lortuko luke, eta gaur egun bezala mantenduko litzateke, 15 kideko EBko biztanleko BPGren batezbestekoan, erdi mailako eszenatoki batean (gogoratu beharra dugu EUROSTATen arabera 2000. urtean Kataluniako biztanleko BPG Erosteko Ahalmenaren Parekotasunaren arabera 99 indizean zegoela, 15 kideko EBko

---

<sup>3</sup> Kataluniako ekonomiari buruzko estatistika-informazio hori ondoko orritik atera dugu: <http://www.idescat.es>.



batezbestekoa 100 baldin bada). Dena dela, 2002-2010 epean urtero zerga-defizita nahiko gutxituz gero, aldez aurreko atalak finkatutako VAR ereduek adierazten dute epe horren amaieran Kataluniako ekonomia hobea izango dela, ekoizpenari (8. taula), okupazioari (9. taula) eta produktibitateari dagokionez.

Horrela, adibidez, erdi mailako eszenatoki batean, 2002-2010 epeko urte bakoitzean Kataluniak Espainiako Estatuarekiko duen zerga-defizita BPGren %1 gutxituz gero, 2010. urtean Kataluniako biztanleko BPG %9,8 handiagoa litzateke; BPGren %3 gutxituz gero, 2010. urtean biztanleko BPG %32,1 handiagoa litzateke, eta, amaitzeko, zerga-defizita BPGren %5 gutxituz gero ekitaldi bakoitzean, 2010. urtean Kataluniako biztanleko BPG %58,3 handiagoa litzateke.

Laburtuz, Kataluniak bakarrik lortuko luke Europako herrialde dinamikoenen biztanleko BPGra nahiko hurbiltzea, betiere Espainiako Estatuaren zerga-defizita nahiko gutxitzen lortzen bada, nahiz eta jarraian azaltzen dugun hipotesia egin: zerga-defizita gutxitu gabe Kataluniako ekonomiak erdi mailako eszenatokiaren arabera handituko dela eta,aldi berean, hazkunde hori ez dela 15 kideko EBko herrian hazkundearen batezbestekotik asko aldenduko.

Aurreko paragrafoan azaldutako hipotesien arabera, zerga-defizitaren gutxipena urteko BPGren %1 balitz (gogoratu dezagun azken urte hauetan BPGren %8 eta %10 bitartekoa izan dela), 2010. urtean Katalunia 108 eta 112 balioen artean egongo lirateke (15 kideko biztanleko BPG 100 bada). Zerga-defizitak urteko BPGren %3 egiten badu behera, Kataluniako biztanleko BPG 120-130 bitartean legoke (15 kideko EBren batezbestekotik %20 eta %30 bitartekotik gora). Amaitzeko, murrizketa BPGren %5 balitz, biztanleko BPG 135 eta 150 indize-balioen artean legoke. Zerga-defizita

gutxitzearen ondorioz Kataluniako ekonomiak duen hazkunde horri esker, biztanleko BPGri dagokionez (Erosteko Ahalmenaren Parekotasunaren arabera), gaur egun Kataluniak baino biztanleko BPG handiago duten Europako zenbait lurraldetara hurbilduko litzateke. Horrela bada, 9. taulak Katalunia heltzeko moduko zenbait herrialde agertzen dira, eta batzuetan herrialde horiek gaindituko lituzke, Kataluniak estatuarekiko zerga-defizita murrizteari buruzko hiru kasuetan.

1. taula				
BPGren eta biztanleko errenta erabilgarriaren bilakaera				
	Biztanleko BPG Erosteke ahalmenaren parekotasunean 166 lurraldeen batezbestekoa UE-15=100		Etxeetan duten biztanleko errenta gordina  Estatuko batezbestekoa = 100	
	1997	2002	1995	2002
Madril	101	112,4	119	120
Euskadi	94	104,8	120	124
Nafarroa	97	104,2	124	122
<b>Katalunia</b>	<b>100</b>	<b>100,9</b>	<b>117</b>	<b>112</b>
Balear Irlak	101	97,9	124	121
Valentzia	76	79,9	96	97
Espainiako Estatua	80	84,7	100	100

Iturriak: Eurostat, EIN.

2. taula				
Gastu publikoaren banaketa Espainian gobernu-mailen arabera				
	1980		2001	
	Guztiaren %	BPGren %	Guztiaren %	BPGren %
<b>Gobernu Zentrala</b> (Estatua eta Gizarte Segurantzza)	90	26	61	25
<b>Lurraldeetako gobernuak</b> (Autonomia Erkidegoak)	-	-	26	11
<b>Tokiko gobernuak</b> (Aldundiak eta udalak)	10	3	13	5

<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>29</b>	<b>100</b>	<b>41</b>
----------------	------------	-----------	------------	-----------

**Iturriak: Ogasun Ministerioa, "La Descentralización del gasto público en España". Herri Administrazioen Ministerioa, "Informe Económico-Financiero de las Administraciones Territoriales".**

<b>3. taula</b>				
<b>Zerga-bilketaren banaketa Espainian gobernu-mailen arabera</b>				
	<b>1988</b>		<b>2001</b>	
	Guztiaren %	BPGren %	Guztiaren %	BPGren %
<b>Gobernu Zentrala</b> (Estatua eta Gizarte Segurantzza)	86	29	80	32
<b>Lurraldeetako gobernuak</b> (Autonomia Erkidegoak)	6	2	12	6
<b>Tokiko gobernuak</b> (Aldundiak eta udalak)	8	3	8	4
Guztira	100	34	100	40

**Iturriak:** Ogasun Ministerioa, "La Descentralización del gasto público en España". Herri Administrazioen Ministerioa, "Informe Económico-Financiero de las Administraciones Territoriales".

<b>4. taula</b>			
<b>Biztanleko BPGtik biztanleko errenta erabilgarrira. 2004. urtea</b>			
<b>Biztanleko BPG</b>		<b>Biztanleko errenta erabilgarria</b>	
		<b>Erosteko Ahalmenaren parekotasunean</b>	
1.- Madril	131	1.- Madril	119
2.- Nafarroa	126	2.- Euskadi	117
3.- Euskadi	125	3.- Nafarroa	116
<b>4.- Katalunia</b>	<b>120</b>	4.- Aragoi	114
5.- Balear Irlak	113	5.- Errioxa	113
6.- Errioxa	109	6.- Gaztela eta Leon	112
7.- Aragoi	107	7.- Balear Irlak	108
8.- Kantabria	97	8.- Ceuta eta Melilla	107
9.- Gaztela eta Leon	94	<b>9.- Katalunia</b>	<b>106</b>
10.- Valentzia	93	10.- Kantabria	104
11.- Kanariak	92	11.- Gaztela-Mantxa	97
12.- Ceuta eta Melilla	90	12.- Valentzia	95
13.- Asturias	86	13.- Kanariak	94
14.- Murtzia	84	14.- Asturias	92
15.- Galizia	80	15.- Galizia	89
16.- Gaztela-Mantxa	78	16.- Murtzia	86

17.- Andaluzia	77	17.- Andaluzia	85
18.- Extremadura	67	18.- Extremadura	84

**Iturriak: EIN, FUNCAS.**

<p style="text-align: center;"><b>5. taula</b>  <b>Kataluniako Generalitatearen baliabideak:</b>  <b>Estatuko zergetan eta nahikotasun fondoetan duen parte-hartze autonomikoa</b></p>	
<p><b>1979ko Sau Estatutua</b>  <b>2001eko LOFCaren berrikuspena</b></p>	<p><b>2006ko Moncloako Estatutua</b></p>
BEZ: 35%	BEZ: 50%
PFEZ: 33%	PFEZ: 50%
Zerga bereziak: 40%	Zerga bereziak: 58%
	<p><b><u>ESTATUKO NAHIKOTASUN FUNTS NEGATIBOA *</u></b></p> <p>2006ko zergetako esku-hartzeen ehunekoekin, "<b><u>diruan soberan izango da</u></b>" Generalitatearen aurrekontuei aurre egiteko.</p> <p>Katalunia estatuko nahikotasun funtsaren <b><u>zergapeko garbia</u></b> izango da</p>
<p>Azkenen gehien litekeen emaitza: Generalitatearen antzeko emaitza ekonomikoak</p>	
<p><b><u>ESTATUKO NAHIKOTASUN FUNTS POSITIBIBOA</u></b></p> <p>Zergetan duen parte-hartzearen ehunekoarekin <b><u>beti dirua falta izan da</u></b> Generalitatearen aurrekontuari aurre egiteko</p> <p>Katalunia beti estatuko nahikotasun funtsaren <b><u>hartzaile garbia</u></b> izan da</p>	

Iturria: "Estatut, aeroports i ports de peix al cove" (2006), Ramon Tremosa i Balcells.

**\* Miguel Ángel Fernández Ordóñez, Ogasuneko Estatuko Idazkaria: "Estatuko nahikotasun funtsa negatibo izango da Kataluniarentzat" (Expansión, 2006.01.26).**



<p align="center"><b>6. taula</b>  <b>Kataluniako sistema autonomikora loturako baliabideak</b>  <b>2003. urtea</b></p>		
	Milioi euro	Aldaketaren % 2003/2002
<b>PFEZ, %33</b>	<b>3.541</b>	<b>%6,3</b>
<b>BEZ, %35</b>	<b>2.741</b>	<b>%9,9</b>
<b>Zerga Bereziak</b>	<b>1.367</b>	<b>%4,4</b>
Alkohola eta edari eratorriak, %40 = 81		%2,3
Tabako-lanak, %40 = 404		%9,1
Hidrokarburoak, %40 = 724		%1,6
Elektrizitatea, %100 = 158		%7,7
<b>Lagatako ohiko zergak</b>	<b>3.107</b>	<b>%20,9</b>
Ondarearen gaineko zerga = 274		%12,6
Oinordetzak eta dohaintzak = 390		%18,1
Ondare eskualdaketak = 1.213		%17,1
Egintza juridiko dokumentatuak = 866		%35,2
Jolasaren gaineko tasak = 287		%-7,2
<b>Arauzko tasak</b>	<b>98</b>	<b>%6,8</b>
<b>Garraiobideak</b>	<b>246</b>	<b>%8,5</b>
<b>ZERGA-SARRERAK GUZTIRA (1)</b>	<b>11.249</b>	<b>%10,7</b>
<b>Estatuaren nahikotasun funtsa</b>	<b>2.058</b>	<b>%7,5</b>
Osasun berme funtsa	36	%1,1
<b>ESTATUAREN TRANSFERENTZIAK GUZTIRA (2)</b>	<b>2.093</b>	<b>%7,4</b>
<b>BALIABIDEAK GUZTIRA (1+2)</b>	<b>13.342</b>	<b>%10,2</b>
<b>Kataluniako BPG, 2003 (milioi eurotan)</b>	<b>156.272</b>	
<b>Generalitatearen baliabideen ehunekoa Kataluniako BPGrekiko</b>	<b>%8,53</b>	

Iturria: Nota d'Economia, 82 (2005) eta Idescat.

**7. taula**  
**Araubide komuneko finantzazio autonomikoko sistemara lotutako**  
**baliabideak \***  
**2003. urtea**

	Miloi euro	€ / biztanleko	Indizea = 100 Estatuaren batezbestekoa
1.- Extremadura	2.336	2.175	123
2.- Gaztela eta Leon	5.163	2.075	118
3.- Errioxa	605	2.105	116
4.- Kantabria	1.124	2.045	116
5.- Aragoi	2.503	2.035	115
6.- Asturias	2.140	1.990	113
7.- Galizia	5.445	1.979	112
8.- Gaztela- Mantxa	3.510	1.933	110
9.- Andaluzia	13.489	1.773	101
10.- Kanariak	3.245	1.713	97
<b>11.- Katalunia</b>	<b>11.355</b>	<b>1.694</b>	<b>96</b>
12.- Murtzia	2.051	1.616	92
13.- Valentzia	7.187	1.608	91
14.- Madril	8.739	1.528	87
15.- Balear Irlak	1.414	1.492	85
<b>Guztira</b>	<b>70.306</b>	<b>1.763</b>	<b>100</b>

\* Baliabide honetan ez dira lurraldeen arteko funtsa sartzen, ezta nahikotasun funtsa eta Europar funtsak. Funts horiek 2002an Extremadurako indizea 142ra igo zuten.

**\* Gainera ez da kontuan hartzen Estatuak lurraldeka egiten duen inbertitzeko ekintza eta gastu publikoa, eta horiek lurralde batzuen alde egiten dute eta biztanleko finantzazio nahikotasun eza batzuk konpentsatzen dituzte (Madril).**

**Iturria: Nota d'Economia, 82 (2005).**

**8. taula**  
**Finantzazio-proposamenen arteko aldeak**

	<b><u>Kataluniako gobernua</u></b>  2005eko apirila Proposamen artikulatua	<b><u>CiU-ren proposamena</u></b>  2005eko urtarrila Proposamen artikulatua	<b><u>Tinell ituna</u></b>  2003ko abendua Gobernuak egindako akordioa PSC-PSOE, ERC eta ICV artean
<b>LOFCari erreferentzia</b>	Ez dago erreferentziarik	Ez dago erreferentziarik	Ez dago erreferentziarik
<b>Kataluniako ekarpena</b>	Estatuko zerbitzuen (5.art.) eta solidaritate kuotaren (7. art.) balorazioaren arabera: Estatuak ezin dio inolaz ere bere buruari leporatu Kataluniako zergen %50 baino gehiago	Kontribuzio-kuota	Generalitatearen gastu-beharren (6. at.) arabera. Ekarpena Estatuaren zerbitzuetan eta solidaritatean baloratzea (3 at.)
<b>Zerga Agentzia</b>	Berezko eta lagatako zerga guztiak (4. art.)	Katalunian sortutako zerga guztiak (1. art., 2. kap.)	Berezkoak, lagatakoak eta konpartituak (3. at.)
<b>Araugintzako gaitasuna (osoa edo konpartitua)</b>	Katalunian jasandako zerga guztiak (3.2 art.)	Katalunian sortutako zerga guztiak (2. art., 2. kap.)	Katalunian jasandako zerga guztiak (4. at.)
<b>Generalitateari lagatako zergak</b>	Katalunian sortutako zerga guztien %50 gutxienez (5. art.)	Katalunian sortutako zergetan parte hartzea, baita berezko zerga araubidearen etekina ere (1. art., 4. kap.)	Zerga guztietan parte hartzea (4 at.)
<b>Batzorde Mistoa</b>	Aldebiko harreman-organoa, Generalitateak Zerga eta Finantza Politikako Kontseilu Orokorrean hartutako erabakiak alde batera utzi gabe (10. art.)	Negoziatzeko aldebiko organoa (1. arti., 3. kap.)	Negoziatzeko aldebiko organoa (2. at.)
<b>Toki ogasunak (Erakunde-leialtasuna)</b>	Konpentsazioak legealdaketengatik (19.3 art.) eta berezkoak ez diren eskumenak finantzatzea (19.5. art.)	Generalitateak baino ez du eskumena toki finantzazioan (1. art., 6. kap.)	Ez dago erreferentziarik
<b>Estatuak Katalunian egiten duen inbertsioa</b>	Estatuaren inbertsioa proportzionala izango da Kataluniak Espainiako BPGn duen parte-hartzearekiko eta metatutako defiziten konpentsazioa (x.g. bakarra)	Ez dago erreferentziarik	Estatuaren inbertsioa proportzionala izango da Kataluniak Espainiako BPGn duen parte-hartzearekiko eta metatutako defiziten konpentsazioa (7. at.)
<b>Kataluniak Espainiako Estatuarekin duen zerga-defizita</b>	10 urtetan, berdindu egin da Kataluniako antzeko errenta erlatibo duten EBko herrialdeekin. 15 urtetan, ekonomia itunaren	Kataluniako zerga-defizitaren gehienezko muga urte bakoitzeko Kataluniako BPGren	10 urtetan, berdindu egin da Kataluniako antzeko errenta erlatibo duten EBko herrialdeekin (9. at.).

<b>gutxitzea</b>	antzeko emaitzak (8. art.)	%4an (3.3. art., 1. kap.)	15 urtetan, ekonomia itunaren antzeko emaitzak (5. at.)
<b>Zerga-ahalegina</b>	Kontuan izango dira zerbitzu publikoengatikoko prezio pribatu guztiak (7.2. art.)	Ez dago erreferentziarik	Zenbatu egiten dira Katalunian gehiegi ordaindutako prezio publikoak eta bidesariak (8. at.)

*Iturria: "Estatut, aeroports i ports de peix al cove" (2006), Ramon Tremosa i Balcells.*

9. taula

Kataluniako Estatutuen finantzazio-kapituluen arteko aldeak

	<b><u>Moncloako Estatutua</u></b> 2006ko ekainean erreferendum bidez onestutakoa %49k parte hartu zuen (%74 alde eta % 27 aurka bozkatu zuen)	<b><u>Kataluniako Parlamentuaren Estatutua</u></b> 30.09.2005.09.30ean onetsita %89 alde (CiU, PSC, ERC eta ICV) eta %11 aurka (PP)	<b><u>Sau Estatutua</u></b> 1979ko ekainean erreferendum bidez onetsita %62k parte hartu zuen (%89k alde eta %11k aurka bozkatu zuen)
<b>LOFCari erreferentzia</b>	Berez aipatzen da Lege Organikoa, Espainiako Konstituzioaren 157.3 artikuluan aipatutakoa (201.1. art.)	Ez dago erreferentziarik. Kataluniako Estatutuaren lehentasunezko printzipioa estatuko legeriarekiko (202.4. art.)	Generalitatearen finantza-eskumenak Lege Organikora egokituko dira, Espainiako Konstituzioaren 157.3 aipatutakora (7a x.g.)
<b>Kataluniako ekarpena</b>	Generalitatearen gastu-beharren arabera: baliabideak gehiago edo gutxiago egokituko dira solidaritateari ordain diezaion (206.1, art.), eta Estatuak soilik finkatuko du solidaritate hori (206.3. art.)	Estatuko zerbitzuen eta solidaritate kuotaren balorazioaren arabera (207., 208., 209. eta 210. art.)	Biztanleria eta zerga-ahaleginaren arteko batezbestekoa, Katalunian bildutako PFEZren arabera neurtuta (45.a art.)
<b>Kataluniako Zerga Agentzia</b>	Berezko zergak, eta Estatuak lagata, guztiz lagatako zergak soilik (204.1. art.). Partzuergo paritarioa zerga agentziak: zerga-administratzaio bakarra "bihur daiteke" (204.1. art.)	Katalunian jasandako zerga guztiak tokikoak izan ezik (205.1. art.)	Berezko zergak (46.1. art.)
<b>Araugintzako ahalmena</b>	Berezko zergak, eta Estatuak lagata, guztiz lagatako zergak soilik (203.2. art.). Estatuari dagokio erabakitzea partzialki lagatako zerga moduan lagatzea	Katalunian jasandako zerga guztiak (204.2. art.)	Berezko zergak (46.1. art.)
<b>Generalitateari lagatako zergak</b>	PFEZren %50, BEZaren %50 eta Zerga Berezien %58: hidrokarburoak, tabakoa eta alkohola (8a, 9a eta 10a xedapen gehigarriak)	Estatuari ehuneko bat egozten zaio haren zerbitzuak finantzatzeko (208. art.)	Ondarea, oinordetzak eta dohaintzak, ondare eskualda-ketak, egintza juridiko doku-mentatuak eta jolasa (6a x.g.)
<b>Batzorde Mistoa Estatua Generalitatea Funtzioak</b>	206. artikulua irismena eta baldintzak adostea (210.2. art.)	Kataluniak Estatuko finantzetara zer ekarpen egin behar duen zehaztea eta Generalitatearen finantzazioa eguneratzea (214.2. art.)	Finkatzea Kataluniak zer partai-detza izango duen Estatuak bildutako kopuru osoan zerga zuzenetan eta ez zuzenetan (3a xedapen iragankorra)
<b>Batzorde Mistoa Estatua Generalitatea Desadostasunak</b>	Estatuak Generalitatearekin dituen desadostasunak arrazoitu baino ez du egin behar (2a x.g.)	Desadostasunik balego, aurreko ereduaren luzapen automatikorako baldintza (212.2. art.). Gatazkak bien arten konpontzea (5a x.g.)	Ez dago erreferentziarik
<b>Estatuak Katalunian egiten duen inbertsioa</b>	Kataluniak Estatuko BPGn duen garrantziarekiko proportzionala 7 urtez, Lurraldean arteko Kontentsatze Funtza kanpoan utzita (3a x.g.)	Estatuaren inbertsioa BPGn duen partaidetzarekiko proportzionala izango da eta metatutako defiziten kontentsazioa (6a x.g.)	Ez dago erreferentziarik
<b>Kataluniak Espainia-ko Estatuarekin duen zerga-defizita gutxitzea</b>	Ez dago erreferentziarik	10 urtetan, berdindu egin da Kataluniako antzeko errenta erlatibo duten EBko herrialdeekin (7a x.g.). 15 urtetan, foru ereduaren emaitzak (8a x.g.)	Ez dago erreferentziarik
<b>Zerga-ahalegina</b>	54 Ez du ondoko kontzeptua zuzentzen: "Estatuak finkatutako ditu aipatutako nibelazio eta solidaritate"	Zerbitzu publikoengatikoko prezio pribatuak kontuan izaten dira (210.2 art.)	Kataluniako lurraldean PFEZren bilketaren bidez neurtuta (45.a)

**Iturria: "Estatut, aeroports i ports de peix al cove" (2006), Ramon Tremosa i Balcells.**

**10. taula**  
**Zerga-fluxuak eta hazkunde ekonomikoa. 2010. urtea**


<b>Kataluniako zerga-defizitaren urteko murrizketa Espainiako sektore publiko zentralarekin</b>	<b>Murriztapenik gabe</b>	<b>%1/PIB</b>	<b>%3/PIB</b>	<b>%5/PIB</b>
<b>Biztanleko BPG Katalunia (Erosteko Ahalmenaren Parekotasuna) (UE-15=100)</b>	97-101	108-112	120-130	135-150
<b>Antzeko indizeak dituzten Europako lurraldeak (2000. urtea)</b>	Rheinland-Pfalz (97) Saarland (97) Bratislavsky (98) East Wales (98) Balearrak (98) Eastern Scotland (100) Umbria (101)	Liguria (108) East Anglia (109) Hampshire (109) Madril (110) Nordrhein-Westfalen (109) Vlaams Brabant (112)	Piemonte (120) Praha (121) Baden-Württemberg (122) Valle d'Aosta (123) Groningen (124) Bayern (124) Antwerpen (125) Hessen (129) Emilia Romagna (129)	Lombardia (135) Trentino-AltoAdige(136) Utrecht (140) Bremen (143) Uusimaa (143) Stockholm (147) Darmstadt (149)

Iturria: Applied Economics, 37 (2005), Jordi Pons eta Ramon Tremosa.




11. taula Kataluniak Espainiako Estatuarekin duen zerga-defizita			
Urtea	Eguneko bilioi pezeta	Eguneko milioi euro	BPG ehunekoa (%)
1986	0,453	2.724	%7,7
1987	0,544	3.270	%8,2
1988	0,559	3.357	%7,4
1989	0,772	4.641	%9,0
1990	0,853	5.129	%9,0
1991	0,934	5.615	%8,9
1992	0,837	5.028	%7,4
1993	0,507	3.046	%4,4
1994	0,746	4.485	%6,0
1995	0,761	4.575	%5,6
1996	0,915	5.500	%6,4
1997	1,268	7.619	%8,5
1998	1,285	7.725	%8,1
1999	1,585	9.524	%8,7
2000	1,826	10.972	%9,3
2001	1,881	11.307	%9,2

Iturria: Kataluniako Generalitatea



(1. grafikoa. Zerga-balantzak Administrazio Zentralarekin, 1991-1996 batezbestekoa Autonomia Erkidegoen BPGren ehunekoetan)

**Gráfico 2. Total ingresos modelo financiación actual, incluido el F.C.I. y los fondos europeos**  
 (€ habitant, año 2002, media=100)




Iturria: Núria Bosch, Universitat de Barcelona.

(2. grafikoa. Gaur egungo finantzio-ereduaren sarrerak guztira, Lurraldeen arteko Kontentsazio Funtsa eta europar funtsak barne. € biztanleko, 2002. urtea, batezbestekoa=100

Extremadura, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon, Aragoi, Kantabria, Galizia, Asturias, Andalusia, Errioxa, Murtzia, Kanariak, Katalunia, Balentzia, Madril, Balearak Zergak, Nahikotasun Funtsa, Lurraldeen arteko Kontentsazio Funtsa, Europar Funtsak)

### Gráfico 3 Inversión pública liquidada del Estado, 1991-2002, euros per cápita



Iturria: Marta Espasa, Bartzelonako Unibertsitatea

(3. grafikoa. Estatuaren likidatutako inbertsio publikoa, 1991-2002, biztanleko euroak Madril, Estatuaren Batezbestekoa, Katalunia)

## Bibliografia

ALCAIDE, J. Et a ALCAIDE, P. (2004): *Balance económico regional (autonomías y provincias). Años 1995 a 2003*. Aurrezki Kutxen Fundazioa, Madril.

BOSCH, N. y eta ESPASA, M. (1999): ¿Con qué criterios invierte el sector público central? *Desequilibrios territoriales en España y Europa*. Ariel, Bartzelona.

CAIXA DE CATALUNYA (2004): La despesa per habitant en les CCAA, 1996-2003: convergència o divergència regional? *Consum i Economia Familiar*, 34, 40-42.

CAIXA DE CATALUNYA (2004): Productivitat aparent del treball a Catalunya: comparació amb la resta de CC.AA., 1995-2002: *Informe sobre la conjuntura econòmica*, 96, 65-73.

CASTELLS, A.; BARBERÁN, R.; BOSCH, N.; ESPASA, M; RODRIGO, F. eta RUIZ-HUERTA, J. (2000): *Las balanzas fiscales de las Comunidades Autónomas (1991-1996): Análisis de los flujos fiscales de las Comunidades Autónomas con la Administración Central*. Ariel i Fundació Carles Pi i Sunyer d'estudis autonòmics i locals, Bartzelona.

COSTA, J. eta TREMOSA, R. (2003): Spanish regions and the macroeconomic benefits of the European Monetary Union (EMU). *Regional Studies*, 37, 217-226.

DE LA FUENTE, A. (2001): "Un poco de aritmética territorial: Anatomía de una balanza fiscal para las regiones españolas". FEDEA, Estudios sobre la Economía Española (EEE91), Madril.

DESMET, K. eta ORTUÑO, I. (2001): "Rational underdevelopment", Banco de España, Servicio de Estudios, Document de Treball 0114. zenbakia.

EUROSTAT (2004): news release, 21.  
<http://www.europa.eu.int/comm/eurostat>

EUROSTAT (2000): news release, 18.  
<http://www.europa.eu.int/comm/eurostat>

GENERALITAT DE CATALUNYA: *La balança fiscal de Catalunya amb l'Administració Central*. Grup de treball per a l'actualització de la balança fiscal de Catalunya. Part Catalana de la Comissió Mixta de Valoracions Administració de l'Estat-Generalitat de Catalunya.

HERCE, J.A. eta SOSVILLA-RIVERO, S. (1996): Efectos macroeconómicos del Marco de Apoyo Comunitario 1994-1999: Un análisis basado en el modelo

JOUMARD, I. eta KONGSRUD, M. (2003): *Fiscal relations across governments levels*. Working Paper, 375. Economics Departament OECD.

LEONARD, H. eta WALDER, J. (2000): *The Federal Budget and the States, fiscal year 1999 (retrospective issue 1983-1999)*. Taubman Center for State and Local Government, John F. Kennedy School of Government, Harvard University (<http://www.ksg.harvard.edu/taubmancenter> web orrian ikusgai).

LÓPEZ-CASASNOVAS, G. (2003): *La distribució de despesa pública per nivells d'administració. L'estat espanyol en el panorama internacional*. Presentació a la 6a Jornada del Col·legi d'Economistes de Catalunya.

LÓPEZ-CASASNOVAS, G. (2004): El Déficit Fiscal de una Comunidad Autónoma con la Administración Central: ¿de qué estamos hablando?. *Papeles de Economía Española*, 99, 182-197.

LÓPEZ-CASASNOVAS, G. eta MARTÍNEZ, E. (2000): *La balança fiscal de Catalunya amb l'Administració central (1995-1998)*. Institut d'Estudis Autonòmics, Generalitat de Catalunya, Bartzelona.

PONS, J. y TREMOSA, R. (2005): "Macroeconomic effects of Catalan fiscal deficit with the Spanish State, 2002-2010". *Applied Economics*, 37, 1455-1463, Routledge, Taylor and Francis Group..

PONS, J. eta TREMOSA, R. (2004): *L'espoli fiscal: una asfíxia premeditada*. 4. argitalpena. 3 i 4 Argitaletxea, Valentzia.

POSCHMANN, F. (1998): *Where the money goes: The distribution of taxes and benefits in Canada*. Commentary 105. C.D. Howe Institute, Ottawa.

REQUEJO, F. (2003): *Federalisme plurinacional i Estat de les autonomies*. Proa, Bartzelona.

ROCA, F. (2000): Cent anys d'estudis sobre el dèficit fiscal català. *Revista Econòmica de Catalunya*, 39, 98-108.

ROS, J., TREMOSA, R. eta PONS, J. (2003): "Capital públic i dèficit fiscal: l'impacte sobre l'economia catalana", *Nota d'Economia*, 75, 103-120.

ROS, J.; TREMOSA, R. eta PONS, J. (2002): *El Sector Públic a Catalunya 1985-1998*. Institut d'Estudis Autònòmics, Bartzelona.

TREMOSA, R. (2007): *Catalunya serà logística o no serà*. 3 i 4 Argitaletxea, Valentzia.

TREMOSA, R. (2006): *Estatut, aeroports i ports de peix al cove*. 3 i 4 Argitaletxea, Valentzia.

TREMOSA, R. (2005): *Estatut, veritats contra mentides*. 3 i 4 Argitaletxea, Valentzia.

TREMOSA, R. (2005): "Solidaridad contra crecimiento". *La financiación de las comunidades autónomas*, 263-285. Publicacions i Edicions de la UB.

TREMOSA, R. (2004): L'intervencionisme liberal del PP: vers el canvi de locomotora. A *L'Espanya d'Aznar. Dotze visions del projectes polític del PP*, 95- 109. Proa Argitaletxea, Bartzelona.

ZABALZA, A. (2007): "La financiación autonómica en el Estatuto de Cataluña", *Hacienda Pública Española*, Instituto de Estudios Fiscales (Ekonomia eta Ogasun Ministerioa), 181, 119-161.